


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

**AÑIBARROREN *CRISTAU* DOTRIÑA... ETA
NAFARRERA IDATZIAREN BILAKABIDEAZ.**

Unai Aristizabal Berrospe

Tutorea: Joseba Andoni Lakarra Andrinua

Euskal Ikasketetako Gradua, 2022-2023

Laburpena:

Lan honetan, Añibarro bizkaiera klasikoko idazle ezagunaren -batez ere Urgell eta Villasanteren lanen bitartez- nafarrerazko dotrina baten azterketa aurkeztu dugu: grafia (§ 2) —Urgellen (1987a) Añibarroren *EL*-ren grafia aldaketen inguruko artikulua ardatz hartuaz—, maileguak (§ 4) eta eratorriak (§ 5), -*eta/edo* egituretan dituzten agerpenak ardatz hartuta- bereziki jorratuz.

Lan honen helburua testuaren edizio baterako aurre-lanak aurkeztea izan da. Horretarako, gertukoak diren beste hiru testu nafarrekin erkatu dugu Añibarroren dotrina aztertutako atal orotan eta erkaketaren sintesia den atala aurkeztu (§ 6); LEMko literatur hizkera amankomun baten ezaugarriak aztertuz: garai hau ezaugarritzen duten.

Garaiko idatzizko nafarreraren bilakabidea ikertzeko, Larramendirengandik ikasia lexiko tratamendua jorratu dugu bereziki, zeinek LEMko testuak ezaugarritzen dituen (Urgell 2018). *Eta/edo* egituren erabilera eman diogu arreta (§ 3); hauen bidez testuetan hitz berriak sartzen dira aurretik ezagunak zirenekin batera, lexikoa zabalduz eta garbizaletasun joera gauzatuz. Hauen erabilera ikertu dugu testuetan, Añibarroren dotrinan duten indar handia markatuz.

Francisco Elizalde, Mikelestena eta J. M. de Elizalde nafar idazleen dotrinekin erkatuko dugu Añibarroren lana (§ 6). Aipaturiko azken biak eta Añibarrorena, LEMan kokatu beharrekoak dira (Larramendiren ekimen osoa burututa ezagutu zuten ziurtasun osoz hiru idazleek); Francisco Elizalderen lana Euskara Zaharra eta Lehen Euskara Modernoaren arteko trantsizioan jo dugu: Larramendiren *HH*-a baino 10 urte lehenagokoa eta 1729ko Artearen ondokoa, gertakari hauek testuan nolabait islatzen direla kausituz.

Ikergai hauek landuaz orduko nafarrera idatziaren garapenaren inguruan argigarriak ematen entseatu gara, eta baita Larramendiren eragina idatzizko nafarreran sakonkiago aztertzen.

Eranskinetan gehitu ditugu ale inprimatu eta eskuizkribatuaren arteko konparaketa, eskuizkribuan falta den inprimatuaren ataleko transkripzioa, nafarrerazko oharrak dotrinaren akabuan, portaden eta ale inprimatu zein eskuizkribatuaren argazkiak, grafiaren atalaren barneko azentuaren azterketa (§2.2.9) eta *eta/edo* egituren azalpenak.

Aurkibidea:

| | |
|--|----|
| 0. Laburpena..... | 2 |
| 1. Sarrera..... | 4 |
| 1.1. Korpusa: 1.1.1. Añibarro... 4; 1.1.2. Francisco Elizalde... 5; 1.1.3. Mikelestorena... 7; | |
| 1.1.4. Jose Matías de Elizalde... 8 | |
| 2. Grafia..... | 10 |
| 2.1. Sarrera..... | 10 |
| 2.2. Azterketa..... | 10 |
| 2.2.1. X (SS)> SH... 10; 2.2.2. QU> K... 12; 2.2.3. MB, MP, > NB, NP... 12; 2.2.4. J | |
| >Y... 12; 2.2.5. V-i-V >V-y-V... 12; 2.2.6. V > B... 12; 2.2.7. H > 0... 13; 2.2.8. | |
| Bustidurak ... 14; 2.2.9. Azentua... 15; 2.2.10. Txistukariak... 16; 2.2.11. <g>... 17; | |
| 2.2.12. <f>... 17 | |
| 2.3. Behin behineko emaitzak..... | 17 |
| 3. <i>Eta/edo</i> egiturak..... | 19 |
| 3.1. Sarrera..... | 19 |
| 3.2. Azterketa..... | 22 |
| 3.2.1. <i>Eta/edo</i> egituraren baitan soilik... 20; 3.2.2. Lehenik <i>eta/edo</i> egituran, gero aske... | |
| 20; 3.2.3. Lehenik aske, gero <i>eta/edo</i> egituran... 21 | |
| 3.3. Behin behineko emaitzak..... | 24 |
| 4. Maileguak..... | 27 |
| 4.1. Sarrera..... | 27 |
| 4.2. Maileguen azterketa..... | 28 |
| 4.2.1. <i>Eta/edo</i> egituren barnean soilik paraturiko maileguak... 28; 4.2.2. <i>Eta/edo</i> egitura | |
| ostean aske paraturiko maileguak... 29; 4.2.3. <i>Eta/edo</i> egitura aurretik aske paraturiko | |
| maileguak... 29 | |
| 4.3. Behin behineko emaitzak..... | 29 |
| 5. Eratorriak..... | 31 |
| 5.1. Sarrera..... | 31 |
| 5.2. Taula..... | 31 |
| 5.3. Behin behineko emaitzak..... | 33 |
| 6. Nafar testuen konparaketa..... | 38 |
| 7. Ondorio orokorrak..... | 40 |
| 8. Bibliografia..... | 45 |
| 9. Eranskina..... | 46 |
| 1. Eskuizkribuaren eta inprimatuaren... 46; 1. 2. Eskuizkribuan falta den ataleko transkripzioa... | |
| 48; 1.3. Eskuizkribuaren akabuko oharak... 49; 1.4. Portadak eta orrialdeak... 50; 2. | |
| Azentuaren ataleko analisia... 53; 3. <i>Eta/edo</i> azalpenak... 57 | |

1. Sarrera¹

1.1. Korpua

1.1.1. Añibarro. Labur bezain egoki aurkezten du Villasantek (1969: 5) gure egilea:

La personalidad del autor, Fr. Pedro Antonio de Añibarro, ciertamente no es desconocida en las letras vascas, ya que se trata de uno de los clásicos del dialecto vizcaíno. [...] el P. Añibarro fue uno de los pioneros en el cultivo de su dialecto nativo, que era el vizcaíno. Pero su conocimiento y uso de la lengua no se limitó a este sólo dialecto. [...].

Bere bizitzaren inguruan zertzelada batzuk ematearren, esaterako nafarrerazko dotrina idaztera nola iritsi zitekeen, hara Villasanteren (1969: 5) ondoko oharrok:

Siendo de edad de 42 años solicitó pasar al Colegio de Misioneros de Zarauz, fundado expresamente para misionar el país vascongado. En cumplimiento de su oficio le tocó recorrer varias veces, como él mismo dice, todo el país de habla vasca de la parte española. Prendado de los primores y excelencias del euskera (que descubrió gracias a la lectura de las obras del P. Larramendi), y deseoso de capacitarse para un desempeño digno de sus deberes sacerdotales en esta lengua, se dedicó con ahinco al estudio y cultivo de la misma.

Horren haritik, Añibarro, XIX-ko idazleen artean gogoangarria, larramenditar tradizioaren figura garrantzitsuenetakoa da. Tradizio hori Larramendi eta Lehen Euskara Modernoarekin hasten eta hurrengo tradizio literariora bitartean luzatzen da, XIX-ko akaburaino alegia, Arana eta Azkue agertu arte. Tarte horretan kokatuko da ere *eta/edo* egituraren funtsa (§ 3).

Aztertuko dugun obraren inguruan, Vinsonek bere *Essai*-aren lehen bolumenean oraindik ez zuen Añibarroren obra hau ezagutzen eta 2.ean ematen du honen berri, *Additions et corrections* atalean (Vinson 1984 [1891-97]: 552-553); halere, ez du dotrinaren inguruko informazio handirik ematen, izenburuaren inguruko xehetasun batzuk eta bere alea orri solteetan dela besterik ez. Villasanterena (1963: 14) dugu ondoko deskribapena:

Cristau doctriña ... Nafarroaco euscaran. Es la doctrina del P. Astete traducida al vascuence navarro por el P. Añibarro y publicada sin fecha. En el tomo de Obras Misceláneas [...], se lee a propósito de esta traducción: «Se publicó en Pamplona por cuenta y coste del Hospital».

¹ Laburdurak: Añ: Añibarro; *EL*: Añibarroren *Escu-liburua* (1802, 1821) lana; F. Eliz: Francisco Elizalderen *Apezendaco dotrina...* 1735ko lana; G: gipuzkera; *GB*: Villasantek editaturiko Añibarroren *Gramatica Vascongada...* gramatika (1969); *HH*: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (1745, 2 liburuki); J. M. Eliz: Jose Matías de Elizalderen dotrina eskuizkribatua; L: Larramendi; LEM: Lehen Euskara Modernoa; *Mik*: Mikelestorenaren *Zerura nai duenac...* (1749) lana; N: nafarrera; *NDot*: Añibarroren nafarrerazko dotrina (1802-3); sb: salbuespenekin; *VB*: *Voces vascongadas* hiztegia (1963).

Gaspar de Astete josulagunak idatziriko ikasbidearen itzulpena da, beraz, Añibarrorena, garaian Gerónimo de Ripalda josulagun kidearen obraren gisakoa. Biak izan ziren euskarara itzuliak hainbat autoreren eskutik.

Añibarroren itzulpenari gagozkiola, Urgellek (2001: xxxii) ondorengoa dakar:

Nafarrerazko dotrina (*NDot*) beti jo izan da bere lehen obratzat, inertziaz baino ez bada ere. Urtegabe atera zen, halere, eta 1762-1765 artean kokatzen zuen Ruiz de Larrinagaren datatze saioaz geroztik 1802-1803ra atzeratzera behartzen duten dokumentuak azaldu dira (Pérez Goyena 1947-1953: VI, 25, 3525 zb.).

Liburuaren izaera fisikoari dagokionez, letra lodi xamarrean idatziriko 82 orrialde eta 2200 lerro inguru ditu; 7000 hitz ingurukoa da beraz. Liburu motza izan arren bere beste obrekin konparatuaz, *eta/edo* egituren eta eratorrien kopuru esanguratsua du bere genero zein tamainarako (§ 3, 5).

1.1.2. Francisco Elizalde

Francisco Elizalde, Muzkin (Gesalatz, Lizarralde) sorturiko apaiz eta idazlea izan zen. *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, 1735ean Iruñean Ospital Generala bitarteko (Añibarroren *NDot*-en gisara, beraz) kaleratu zen euskarara itzulitako dotrinaren egilea da (Salaberri Zaratiegi 1994). Egileak argitaraturiko lan soila, Larramendi aurreko hegoaldeko goi-nafarrerazko literaturaren ordezkari gisara ekarri dugu hona dotrina hau. Salaberri Zaratiegik obra honen inguruan buruturiko azterketa (1994) oinarri hartuko dugu lan honetan aipaturiko beste hiru nafar dotrinekin erkatzeko.

Interesgarri gertatzen da, halaber, Salaberri Zaratiegik (1994) dotrina baino mende erdi beranduagoko Muskizen kausituriko testu batzuekin erkatzea Muskizko hizkera zein neurritan islatzen duen aztertzeko (1994: 8). Hurrengoa dakar dotrinaren hizkuntzaz

[*Dotrinaren eta beste testuen arteko*] Ezberdintasun horiek testuek aurkezten duten herrikoitasun handiagoan dautza batik bat, dotrina punturik gehienetan norma literarioago bati jarraitzen zaion bitartean. Hau da, Elizaldek Muzkiko euskaraz ohizkoak bide ziren hainbat gertakari (fonetiko) baztertu zituen, lanari beste goragoko maila bat ematearren, antza (Salaberri Zaratiegi 1994: 8):

Beraz, dotrinak, nahiz eta Larramendi aurrekoa izan hein batean (hiztegiaren (1745) aurreko bainan apologia (1728) eta gramatikaren (1729) osteko), hizkuntzaren inguruko kezka azaltzen du (Larramendiren eraginez apika), idatzizko-hizkuntza landuagoa baliatuz nafarrerazko dotrina ematerakoan. Lan honetan aztergai, beraz,

Francisco Elizaldek darabilen literatur-hizkera zein punturaino datorren bat Larramendi osteko hona ekarririko beste hiru testuen hizkuntzarekin.

Autore honetaz are aipagarriago da, agian, bere dotrinaren lehen orrialdean paraturikoa: “[...] eta Españaco Erreinarean Alargunaren Confessore [...]” izan zela; Larramendik ukan zuen kargu bera 1730-1733 urteen artean (Urgell 2014: 270). Iduri du, beraz, F. Elizalderen obra 1735ekoa izanda, Larramendiren kargua hartu zuela, hau Loiolara bere hizkuntz-proiektuan lan egitera (1734an, beraz) erretiratu ostean. Gauzak horrela, pentsatzekoa da elkarren berri izanen zutela, biak josulagunak izanik eta F. Elizaldek Larramendiren lanen berri izan zezakeela, bai eta haren eragina 1735eko dotrinan ageri, *HH* aurrekoa izanagatik ere. Aipatu behar ere, Larramendi hiztegia egiten hasia zela Baionan eta are Salamancan zegoenean, Loiolara erretiratzerakoan gehiengo burutu bazuen ere (Urgell 2014: 271) eta beraz bere asmoaren berririk izan zezakeela.

Ildo horretatik, Zuloagak frogatu du (2015: 197) Larramendiren apologia zein artearen ondoko baino hiztegi aurretiko zenbait bizkaitarren lanetan “Euskara Zaharretik Lehenengo Euskara Modernora bitarteko trantsizio-sasoian” zela: “Durango aldeko orduko testuei begiratuta [*Urkizuren 1737ko lanaz ari da, besteren artean*], argi ikusten da hainbat berrikuntza gertatzen ari zirela edo gertatuak zirela jada, eta idazleek bazutela idatziaren inguruko kontzientzia eta/edo jakintza osoagoa”.

Ildo horretatik, F. Elizalde eta Muzkiko beste testuekiko ezberdintasunen paraleloa aurkezten du Zuloagak bere lanean (2015: 197): *Urkizuren lanak* (1737) Arzadunen lehen edizioarekiko (1731) azaltzen dituen hizkuntz hautu ezberdinik behinenak, Arzadunek herri hizkerako hainbat ezaugarri fonetiko zein morfologiko islatu izana —Muzkiko mende erdi ondoren kausituriko testuen antzera (Salaberri Zaratiegi 1994)— eta *Urkizuk F. Elizalderen antzera hizkera landuagoa adierazi izana*. Beraz, antzeko eraginaren islatzat jo genezake F. Elizalde azalduko hautua: “[...] Muzkiko euskaraz ohizkoak bide ziren hainbat gertakari (fonetiko) [...]” (Salaberri Zaratiegi 1994: 8) baztertu izana.

Hala eta guztiz ere, hizkeraren landutasuna F. Elizalderengan maila apalagoan espero dugu Larramendiren jarraitzaile nabarmena den Añibarroekin, bai eta haren asmo burutu osoa ezagutu zuten Mikelestorena zein J. M. Elizalderekin konparaturik;

hortaz, “Euskara Zaharretik Lehenengo Euskara Modernora bitarteko trantsizio-sasoian” (Zuloaga 2015: 197).

F. Elizalderen dotrinaren ezaugarri fisikoei dagokienez, 96 orrialde ukanagatik ere, txikia da tamainaz (Salaberri Zaratiegi 1994: 7), letra lodiaz idatziriko 2500 bat lerro baina 7000 hitz inguru azaltzen ditu honek ere; Añibarrorenaren antzekoa tamaina zein edukian eta egituran: biak galde-erantzunez nagusiki osaturiko dotrina liburuak dira.

1.2.3. Mikelestorena

Jose Antonio Mikelestorenari dagokionez, hara hemen nafar elizgizon honen bizitzaren inguruko zertzeladak (Arzak & Soraluze 1894: 574-5 in Salaberri Muñoa 2019a: 30):

Lesakan jaioa da Jose Antonio Mikelestorena, 1710ean. Apaiz-ikasketak burututa, Iruñean ordenatu zen hogeita lau urte zituela. [...] lehendabizi Irunen izan zuen abade-ardura. Geroago, Donostian, bertako moja karmeldarren kaperau nagusi gisa. Aukera izan zuenean, jaioterrira itzuli zen parroko modura. [...] Bertan hil zen 1785ean.

Hortaz, Añibarro zein J. M. de Elizalde baino mende erdi lehenagoko idazlea dugu. Berak Larramendiren lana ezagutu zuen eta Mendibururen lagun eta kide izan zen (Salaberri Muñoa 2019: 30); horrela, bere hizkera Mendibururen zordun da (Salaberri Muñoa 2019b: 25). Aztergai dugun obrari dagokionez (Salaberri Muñoa 2019a: 30):

Egungo euskara bateratuan *Zerura nahi duenak har dezakeen bide erraza* [...] liburua da Mikelestorenari ezagutzen zaion bakarra [...] bost aldiz inprimatu zen idazlana, edizio guztiak desberdin egiten zituen ñabardura edo bereizgarriren batez edo bestez hornituak [...] edizio guztietara hedatu zituen moldaketa-aldaketak, oso xumeak gehienetan (grafiari eta aditz formei zegozkienak nagusiki: *nai/nay, dezaquen/dezaquean, bear/behaz, zara/zera, det/dut*, etab.).

Guk baliaturiko testuaren bertsioa Salaberri Muñoaren edizio kritikoa da; lehen argitalpenean (1749) dago oinarriturik (Salaberri Muñoa 2019a: 32), eta bertako datuak baliatu ditugu beraz, grafia eta bestelakoei dagokienez.² Lehen argitalpenari dagokionez, guztien artean edizio landuena da; testuarekin uztarturiko irudi aberatsak eta edukia liburuaren formari ederki egokiturik azalduz (Salaberri Muñoa 2019a: 32).

Dotrinaren edizioa oso landua bada ere, Salaberri Muñoak (2019b: 14) ondorengoa dakar Mikelestorenaren lanaren asmoaren eta hizkeraren inguruan:

Begi-bistakoa da Mikelestorenaren liburuak ez duela katixima-bokaziorik, oro har erlijio-praktikarako formulak era errazean emateko helburua besterik ez baitu. Areago, haren hizkera

² Berez, Mikelestorenaren liburuak egun ezagun diren bost argitalpen izan zituen, bederen, haien arteko moldaketa ezberdinekin. Honi buruz gehiago jakiteko: Salaberri Muñoa (2019a, 2019b).

laua, kontzeptu-sinpletasuna, atalen laburtasuna... xede horretatik desbideratu nahi ez lukeen liburu batez mintzo zaizkigu etengabe.

Horrekin lotuz, garaikide diren LEM-ko testu orotan, “Idazlanaren izaerak erabakitzen du neologismoen neurria (Sarasola 1986): idazkia jasoago eta hitz berri gehiago. Sermoigileak neurritz jokatu ohi zuten [...]” (Urgell 2018: 634). Horrela, Mikelestorenaren testuan LEM-ko ezaugarriak azaltzea espero dugu; halere, joskera apalagoko idazlan gisa ulertu behar da garaiko dotrinetako joskera landueneko testuekin konparatuz. Beraz, bere lexikoaren tratamendua bestelakoa izatea espero da, nahiz eta, oro har, J.M. de Elizalde zein Añibarroren garaikidea izan.³

Liburuaren deskribapenari dagokionez, Salaberri Muñoak ondorengoa dakar, (Altzola 1967 in Salaberri Muñoa 2019a: 32): “114 páginas, 0,10 X 0,07 m. Lleva abundantes viñetas, bien ejecutadas”. 114 orrialdekoa izanagatik ere, Salaberri Muñoak folio txikiko edizioa dela aitorturik (2019a: 30), 7000 hitz baino gutxixeago zenbatu dizkiot nik; Añibarroena baino zertxobait motzagoa, oso gertuko tamainakoak hirurak.

1.1.4. Jose Matías de Elizalde

Jose Matías de Elizalde gure azken idazle nafarrak ere ikasbidea idatzi zuen. Halere, hau da hiru nafar dotrinen artean eskuizkribua den bakarra ere, dotrina hau ez baitzen argitaratu Ondarraren ediziora arte (1992):

Jose Matias de Elizalde da, Gartzaingo auzo den Aizanon dagoen Etxeberria etxean 1776.ean jaioa eta bertan ia 80 urte zituelarik 1856.ean hila. Loiolan egin zen premonstretar fraide 1801.ean eta bertan apaiztu, Urdazubiko monastegia erre eta utzirik zegoela frantsesearen ondorioz. Monastegi honetan dugu 1806.etik aurrera, bertako abate izateraino iritsi zela (1833-1839). Jakintsua zen, Sibiliako Unibertsitatean ibilia, zazpi hizkuntza zekizkiena, 3 konfesategian eta hortik kanpo ere itzal eta autoritate handikoa. Monastegitik jaurtikirik, bere jaiotexera erretiratu zen. (Ondarra 1993: 576).

Honek ere Larramendiren lana ezagutu zuen, Ondarrak azaldu gisan (1993).

J. M. de Elizalderen dotrinaz (bereak ere diren predikuak ez bezala, —XIX-ko hirugarren hamarkadan emanak baitira hauek— “[..] mende horren [XIX] lehenbiziko aldian izan zen itzulia” (Ondarra 1992: 977). Beraz, Añibarroren dotrinaren data oso antzekoa du eskuizkribuak eta hau ere Asteteren dotrinaren itzulpena da. Añibarro

³ Honekin batera, ikusirik Mikelestorenaren testua, bere izaeragatik Añibarro zein J. M. Elizalderenekin osoki erkagarria ez dela, azaldu nahi genuke nahiz eta erkaketarako perfektua ez den, azken finean ez dela testu askorik nafarreraz garai honetan F. Elizalderen (Larramendi aurreko) eta Añibarroren (Larramendi osteko) bi testuen arteko beste erkaketa posible gisan; horretarako paratu dugu Mikelestorenaren testua lan honetan, emankorra suertatuko delakoan.

bezain jantzia ez den idazle nafar baten dotrina argitaragabe honetan, LEM-ko ezaugarriak agertzea espero dugu, Añibarroren obran baino maila apalagoan badaere.

Deskribapen fisikoari dagokionez, (Ondarra 1992: 977):

32 orri zenbakiz hornitu gabeak dira, 21 ZID. luze eta 15 ZID. zabal direlarik. Egia esan, 16 orri dira, bakoitza erditik tolestatu eta horrela. 32 orri eginik eta erdi horretatik josirik. Lehenbiziko bi orrialdeak zuri daude, eta gauza bera esan behar da azkeneko hiru orrialdeez ere.

Tamainaz ideia bat egiteko, Añibarroren nafarrerazko dotrinaren eskuizkribuak ere 32 orrialde ditu, guztiak osorik idatzirik azkenengo orrialdea izan ezik: autoreak baliaturiko hizkeraren inguruko ohar batzuk dakartza hemen. Erdian ere zatitxo bat du faltan gero ale inprimatuan ageri dena, baina orrialde batera heltzen ez dena. Hortaz, azkenengo dotrina hau, Añibarrorenaren tamainatik gertukotzat jo beharra dugu. Lau dotrinak, beraz, gorabehera txikiekin tamaina bertsukoak dira.

Korpusaren azalpenarekin amaitzeko, Lizarraga Elkanokoa idazlea erkaketa honetatik at geratu izana justifikatzera gatoz. Finean, lan honek dagoeneko hartu duen orrialde kopuruak ezinezko egiten digu Lizarraga Elkanokoaz aritzea, sartzeak lan askoz zabalagoa eskatuko bailuke, bere obra erkaturiko beste idazleena baino nabarmenki oparoagoa izan baitzen. Arrazoi horiek medio, kanpoan utzi dugu autore hau⁴.

4 Erkaketa honetarako, ezinutzizkoa litzateke Ibai Iriarteren lana (2022), zeinetan Lizarragaren obrako lexikoaren azterketa azaltzen den.

2. Grafia

2. 1. Sarrera

Grafiara hurbiltzeko, Urgellen (2018) azterketako ideia batzuk ekarriko ditut hona. Dagokion garaian (LEM, beraz), gramatizazio prozesuaren garapenak grafian ere badu islarik, eta proposamen ugari ageri dira grafia berritzeko, nahiz eta hauek xumeki baino ez hedatuko; Euskara Zaharreko sistemarekin ez da guztiz apurtzen, beraz. Bestetik, *NDot*-en azterketarako garrantzitsua den beste ideia bat: grafia kontuetan, inprenta edo moldiztegiak baliabideek agintzen zuten; hots, kapital nahikoa inbertitu ezean, ez zegoen zeinahi karaktere nahi zen neurritan baliatzeko paradarik, kasurako *z* tipoak *c* baino urriagoak izanik, <tz> grafia Larramendiren gisako *e*, *i* aurreko testuinguruetara hedatzea ez zen erraza izan baliabide egokiak ez zituzten idazleentzat (Urgell 2018: 607).

Grafia berritzen ari ziren idazleen artean, Añibarrok berak haren *Esku-liburua*-ren bigarren edizioan (1821) eman zuen bere proposamenik behinena, Zabala frantziskotar lagunarekin bateragarria (Urgell 2018: 608).

Grafiaren azterketan, Urgellek Añibarroren *Esku-liburua* lanaren bi edizioen arteko grafiaren aldaketak jorratzen dituen lana (1987a) hartu dut oinarri, proposamen horrekiko *NDot* non paratzen den zedarritzeko. Lan horretan, edizio batetik besterako grafia aldaketa bakoitza azaltzen du Urgellek, bai eta grafia hautuen historia marraztu horren bitartean, Larramendiren eta bere ondorengoen esanak eta eginak ekarriz, bai eta tartean Añibarrorenak berarenak, *NDot*-erako grafia deskribatuko dut, bai eta F. Elizalde, Mikelestorena zein J. M. de Elizalderen dotrinetak grafiarekin konparatuko ere. Hautu grafikoen bidez, nafar dotrinen arteko erkaketa egingen dut, eta bide batez Añibarroren lanaren kronologiaren inguruko oharak bilduko halaber.

2. 2. Azterketa

Urgellen (1987a) artikuluan oinarriturik, 9 dira berak EL-ren edizioen artean azterturiko aldaketak, azentuaren ingurukoa delarik azkeneko atala. Ordena bera segituko dut, eta grafia konparaketa osatzeko hiru atal gehituko ditut, Urgellek artikulua horretan dakarren sistemaren deskripzio osoari heltzeko: txistukariak, <g>, eta <f>-a:

2. 2. 1. $X(SS) > SH$

Honi dagokionez, Urgellek (2001: xxxvi) ondokoa aurreratzen digu:

Bestalde, aro honetako argitalpenak bat datoz funtsean EL1-eko grafi sistemarekin eta, are gehiago, esan daiteke NDot eta LoraS hura baino ordezkari hobeak direla, zeren eta /š/ hotserako <ss> erregulariki erabiltzen baitute <x>ekin batera, EL-an honen ordez hainbat dauden bitartean (Urgell 1987a: 362 eta 1988b: 14)

Dotrinan, <ss> baliatzen du beti honako kasu bakanetan: *assuri*⁵ (80), *beressi* (17, 18), (bainan *bereciera* (14), *berezko* (24)), *essamina/e* (47, 48), *maissu* (27, 33, 34, 68)

<sh>-rik ez du inoiz baliatzen. <x> grafema, aldiz, /x/ soinua adierazteko erabiltzen du soilik, *luxuria* (59) adibidean (*lujuria* (57, 58) bi kontraadibide baditu). Horrela, txistukari palatala <ss>k adierazten du, <ll>-ren palatalizazioa adierazteko logika berari jarraikiz (Mitxelena 1978: 394-395 in Urgell 1987a: 400). Halere, grafema horren testuinguruak ez du zertan /i/ ondoren izan, adibideotan nabari denez.

F. Elizalde, /š/ soinua adierazteko <ss> grafema baliatzen du, kontsonante aurreko <s> grafemarekin batera; honako adibideak dakartza Salaberri Zaratiegik (1994: 14): “*onelasse, berlasse* (4), *gaisto* (3)”. Halere, <ss> bokalarteko frikari apikariaren grafemaren aldaera izan daitekeela adierazten du (1994: 14): “*Missionero, Confessore* (l)” gisako adibideetan bezala. <x> grafema [x] soinua paratzeko baliatzen du soilik (Salaberri Zaratiegi 1994: 14): “*proximo* (8)”.

Mikelestorenak ez du <x>-rik erabiltzen (ezpada latinezko zatietan), ez eta <sh>-rik. Aldiz, <ss> grafia zabalki darabil *confessio, essan/essain, assi, passatu, asserretu, issuri, passio* formetan. Halere, “Euskalerriko leku eta garai ezberdinetan digrafo bera agertu bait da erabiltzaileen arteko lotura ezagunik gabe” (Urgell 1987a: 401), ez dirudi arestian aipaturiko sabaikaritasunik islatzen duenik digrafo honek Mikelestorenarenean. Aipaturiko adibideek kontrakoak dituzte, *asserre* (11, 13) bainan *aserretu* (12); *assitce* (36, 95) baina *asitze* (73); *issuri* (60) baina *isuri* (13), <s> grafemaren bokalarteko aldaera ere izaten ahal dena, *asserrerekin* kasurako.

J. M. de Elizalde ez du <ss> zein <sh>-rik paratzen, bai ordea <x>, gaztelaniazko maileguetan betiere, *excelente, exemplu, proximo, examina* gisako formetan, ondare zaharrekoetan ez bezala.

2. 2. 2. QU> K. <k>-rik ez da ageri dotrinan, salbuespenik gabe. <c> = /k/ / a,o,u eta qu = /k/ / _e,i sistema darabil, EL1-eko sistemaren parekoa. Bai F. Elizalde, bai Mikelestorenak eta bai J. M. de Elizalde sistema bera dakarte.

5 NDot-en eskuizkribuan, *assuri* forman txanoa agertzen du ss-aren gainean.

2. 2. 3. *MB, MP, > NB, NP*. <mb>, <mp> darabil beti, salbuespenik gabe, hemen ere *ELI*-eko sistemaren pare.

F. Elizalde sistema bera darabil, baita Mikelestorenak ere, <nb> salbuespen bakarrarekin, *nonbait* (77) eta antzera J. M. de Elizalde: sistema bera, <nb> adibide bakarrarekin *minbroac* (21) forman eta <np> *menpecoenen* (33, 35).

2. 2. 4. *J > Y*. <j> darabil salbuespenik gabe, *ELI*-en gisara.

F. Elizalderenean, hitz hasieran <j> grafema gailentzen da; Mikelestorenarenean, berdin. J. M. de Elizalderi dagokionez, (Ondarra 1992: 978): “gutxi-gutxitan ageri da *g/j*- hitz hasieran, horren ordeztu grekoa ageri dela, ahoskeraren arabera: *yarriric, Yeneralá, Yinco; Yuramentu, Yusticiaric*; eta hitz barnean ere ikusten dugu hitz hauetan: *inyustu* eta *inyuriazcoac*”.

Gauzak horrela, J. M. Elizalderenaz gaindi, hautu bera egiten dute beste hiru testuek.

2. 2. 5. *V-i-V > V-y-V*. *V-i-V* ageri du, salbuespen bakarrarekin: *etsayac* (60).

J. M. Elizalde, <y> grafema baliatzen du bokalarlean nabarmenki obra osoan zehar. Mikelestorenak *EL2*-ren bidean dagoela dirudi, Salaberri Muñoaren esanetan (2019: 36): “Horretan Larramendirengandik jasoa dirudi *y* hizkiaren erabilerak: *bay, Ayta, gueyenac, ayentzat, oyec, zayela, noycean, loyac, etsayaren, etab.*”. Halere, gainbegiratuan salbuespenak badira testuan zehar, lehian erakutsirik <y> eta <i> bokalarlean.

J. M. de Elizalde, hitz barnean <y>-dun formak azaltzen ditu, halere, Mikelestorenaren gisan, lehian dira <i>-kin, nahiz eta <y>-dunek lehia irabazi iduri duten.

2. 2. 6. *V > B*

Erdal jatorri edo itxurako hitzak *v*-rekin adierazten ditu oro har. Halere, *ELI*-eko sistematik urrunduz doa, kasurako *bide* eta *borondate* formak, salbuespen bakarrarekin azaltzen ditu (*vide* 48 eta *vorondate* 3). *Bici* (22, 27(3), 36, 42, 48, 56, 82), *vici*-rekin (1, 3, 5(3), 10, 23, 25, 54, 55, 70, 71, 72, 77) lehia estuan da, baina <v>k irabazten du. Mailegu gardenagoak <v>-z ematen ditu oraindik, salbuespenik gabe: *avaricia* (56), *ave* (4, 32(2), 33, 74, 75, 76, 76(2), 77), *bienaventuranza* (66, 67), *conveni* (56), *devocio*

(34, 55, 79), *divisioa* (14), *envidia* (57, 58, 59), *erreverencia* (33), *salve* (4, 32(2), 33), *vaneria* (60), *venial* (46, 51(2), 52(3), 57), *vicio* (2, 59), *virgiña* (4, 6, 9, 20, 21(2), 23(2), 32(2), 33(3), 68, 69, 71, 76, 77, 78(4), 79(4), 80, 81). Salbuespen aipagarria *salbatu* (44) agertzen da *salvaturen* (4, 5, 9, 23, 51, 71) kontraadibide gisan. *Virtute/vertute* ere (13, 24, 33, 44(2), 45, 54, 59, 61(2), 66) <v>-z ematen du soilik. Hortaz, *GB*-n agertzen den bere v eta b-ren arteko euskarazko bereiztearen azalpena eta *ELI*-en jarraitzen duena, gertutik betetzen da, nahiz eta salbuespen gehiago azaltzen hasi.

F. Elizalde, Mikelestorenak zein J. M. de Elizalde <v>-rekin ematen dituzte erdal itxurako hitzak, nahiz eta azkenak gutxiago darabilen beste biek baino. J. M. de Elizalderena hurbiltzen da gehiago *NDot*-en erabilerara, maiztasuna gutxituz doan heinean, Mikelestorenak oraindik zabalkiago baliatzen du eta F. Elizalde, azkenik, osoki.

2. 2. 7. *H > 0*

<h>-a gaztelaniazko mailegu bakarrean darabil: *humiltasun* (59, 60); baina *umiltasunez* (32), justuki <h>-dun aldaera hori bera da Urgellek (1987a: 416) *EL2*-rako ematen duen <h>-dun kontraadibide bera. Hortaz, <h> grafemaren erabilera urria da oso, *EL2*-ko erabilerarekin erkatzen ahal dena, aipaturiko <h>gabekoak direla eta. Halere, testuaren motza eta izaera kontuan izanik, tentuz ibili behar.

F. Elizalde, Añibarrok bezala, *humildade* (46, 84) mailegua soilik ematen du *h*-z; hortaz haratago ez da <h>-rik aurkitzen bere testuan.

Mikelestorenan, “[...] sistematikoa da Mendiburuk *h*-rekin dakartzan hainbat hitz *h*-rik gabe aurkitzea (*biotz*, *bear*). Lesakarraren lehen edizioan –desberdin jokatuko du hurrengoetan– Larramendik bide darama horretan garaipena, nahasmenduaren erdian bada ere.” (Salaberri Muñoa 2019a: 36).

J. M. de Elizalde, “Gutxitan erabiltzen da *h*- hitz hasieran, gehienik erakusleetan eta *handi* hitzean gertatzen dela.” (Ondarra 1992: 978). Horrela, azken bi testuok <h>-aren erabilpen zabalagoa erakusten dute, Mikelestorenarena J. M. de Elizalderena baino zabalagoa.

2. 2. 8. *Bustidurak*

n sudurkariari Urgellek dioenez “[...] *A*-ko <iñV> ia bakarraren alboan *B*-n <iñV> bai <inV> ditugu: [...] Hitz bukaerako -iñ oso gutxitan dakusagu *A*-n (...); *B*-n ordea behin ere ez”. (1987a: 417)

Ondoren dakardan konparaketan, <inV> eta <iñV> lehia beren baitan duten hainbat forma esanguratsu da, dituzten agerraldi ezberdinak zenbatuz eta gailentzen den forma izartxo (*) nabarmendu dut. Izenkiak direnean, erroaren kasu zein posposizio ezberdindunak kontuan hartu eta taulan bildu ditut.

1. Taula
<inV>- eta <iñV>-dun formen konparaketa

| <iñV> forma | Agerraldi Kopurua | <inV> forma | Agerraldi kopurua | Orotara |
|----------------------------|-------------------|-----------------------------|-------------------|---------|
| * <i>erreguiñe/a</i> | 9 | <i>erreguine/a</i> | 0 | 9 |
| * <i>virgiña</i> | 26 | <i>virgina</i> | 2 | 28 |
| <i>siñis-/ siñes-erroa</i> | 2 | * <i>sinis-/sines-erroa</i> | 54 | 56 |
| <i>dotriña</i> | 1 | * <i>dotrina</i> | 3 | 4 |
| * <i>ceñV</i> | 16 | <i>CeinV</i> | 1 | 17 |
| - <i>iñen</i> ⁶ | 1 | *- <i>inen</i> | 8 | 9 |
| * <i>baño</i> | 7 | <i>baino</i> | 1 | 8 |
| * <i>baña</i> | 4 | <i>baina(n)</i> | 3 | 7 |
| OROTARA | 66 | OROTARA | 72 | 138 |

<inV> nagusitzen zaio <iñV>-ri agerraldi kopuruari dagokionez, nahiz eta azterturiko formen artean, gehiago diren <iñV> testuingurua hobesten dutenak. Bestetik, nabarmenki <in> nagusitzen da hitz amaieran eta kontsonante aurretik (salbuespen bi *urriñ* (62) *ceñ* (16)). Beraz, *EL1*-eko sistemaren parekoa darabil oraindik *N*Dot, nahiz eta *EL2*-ren bidean ageri jada.

“Albokariekin ere, *A*-n bokale artean <(i)ll> nagusi bada, dugu grafiarik normalena *B*-n [...] -*ll* eta -*llK* ere askoz ugariagoak dira *A*-n *B*-n baino” (Urgell 1987a: 418). <illV>-ri dagokionez, hala egiten du bi salbuespenekin: *Pilatos* (4), *milagro* (23),

6 Atzizki prospektiboa.

mailegu gardenak. *-ll* egiten du *ill* erroarekin salbuespenik gabe; ez, halere, *choil* (67, 69, 78(2)) zein *peril* (81) formekin (*perillean* (13) lekukotzen da orobat), <il> akaberaduna bakarrak. Honetan *EL1*-etik gertuago dago beraz.

Bustiduretan, F. Elizalde <ñ> grafemaren erabilera guztizkoa egiten du *i* osteko testuinguruetan (Salaberri Zaratiegi 1994: 9) eta <yn> digrafoa baliatzen testuinguru horietan ere, bustidura adierazteko agian: *baña* (36) eta *bayna* (40), kasurako (Salaberri Zaratiegi 1994: 14). Albokariari dagokionez, dotrinan ez da <ll>z adierazita kausitzen, Muzkin kausituriko beste testuetan ez bezala (Salaberri Zaratiegi 1994: 9)

Mikelestorenak <ñ> darabil *i* osteko testuinguruetan eta bokal artean bereziki, nahiz eta <in>-rekin lehian hein handian, zeina hitz amaieran eta hitz gramatikaletan gailentzen den oro har. <ll>-rekin antzekoa ageri da, <ll> gailendurik testuinguru beretan, lehia apalagoan oro har.

J. M. de Elizalderen kasuan, “Salbuespen gisa aurkitu dugu *usaña* —erdiko *-ñ*-horrekin—, normalki *n* eta *l* agertzen direla, aurretik *i* bokala eta ondotik bokala dutenean: *gaineraco*, *seinale*, *hilen*, etab.” (Ondarra 1992: 978).

2. 2. 9. Azentua

Azentuari dagokionez Urgellek ohartzen du (1987a: 418):

A edizioaren bereizgarrien artean azentuak markatzea sartzen da: ez hitz guztietan, baina nahiko ugari agertzen da liburuaren lehendabiziko zatian; 100. orrirantz urritzen doa, alabaina; 114-115. orrialdeetan lehengo maiztasunera bihurtzen den arren, handik aurrera ez dugu bakanen bat baino aurkituko: hots, oro har 116. orritik bukaeraraino ez dago azenturik.

Añibarrok azentuaren inguruan esan zituenak bere gramatikan (*GB*) lehenago Larramendirengandik ikasitakoak ziren, bere *El Imposible Vencido*-n bereziki (Urgell 1987a: 418). Azentuaren azterketak aditzera eman du Añibarroren dotrinan azentuaren erabilera marginala dela oro har, *EL2*-rako erdibidean; F. Elizalde, Mikelestorena eta J. M. Elizalderengan azentua marginala da ere.⁷

Oraino jorratu ez ditugun grafiaren alderdi batzuk, garrantzitsuak halere, *EL1*-etik *EL2*-ra bitartean aldatzen ez diren ezaugarriak dira. Urgellek ondorioetan, laburbilduriko sistema osatua dakar (1987a: 422); Añibarroren *EL2*-tik aurrerako

⁷ Azentuaren azterketak aztertutako lau nafar obren inguruko ondorio esanguratsurik ez dakarrenez, atal honen luzera dela eta eranskinean paratzea erabaki dugu.

obretan zein Zabalarenean oinarriturik, geratzen diren kontu grafikoak jorratuko ditut orain.

2. 2. 10. Txistukariak

Txistukariei dagokionez, *EL1*-etik *EL2*-ra bitartean aldatu ez direnez, ondoko arauak espero genitzake *NDot*-en, antzeko eredia darabilela honetan ere, ez bada aurreratuagoa zenbait alderditan (Urgell 1987a: 422):

[...] *C* ([...] *e,i=/s/*), *Z* (+*a,o,u,=/s/*; *azken hau e,i testuingurura zabal daiteke, baina analogiaz (gauza-gauzetan, eztabe-ezeban bezalakoetan) gehienbat.*

[...] *CH*(*beti /^hc/*, *sekulaez /k/*, *nahiz eta ordura arte ohizkoa izan LS 71 Christiñauac, 94 Christo legezkoetan*).

[...] *TS,TZ* *Larramendiren erara, baita n, r, l ondoan ere* (cf. Urgell 1986).

Lehen puntua honetan ere betetzen da. Bigarrenari dagokionez, bat dator testua banaketa honekin; *Christo* gisako hiru adibide daude (11, 14, 16), testuaren hasieran kontzentraturik, gero errepikatzen ez den joera. Azkenekoari dagokionez, zeresan gehiago dago. Urgellek hurrengo markatzen du *NDot*-en inguruan (2001: xxxvii):

Liburu honetan oraindik *e, i* aurrean <tc> erabiltzen du Añibarrok, testuinguru guztietan jartzeko Larramendik hedatu zuen joera lehendik ere nagusitzen ari bazen ere (Urgell 1988b: 14 eta 18. oh.). Lehen begiratuan inprimatzaileari leporatzeko tentaldia izan dezakegun arren, gogoratu behar da ohitura haren arrasto gutxi zenbait *EL1*-en aurkitzen direla oraindik ere.

Honetan, <tc> baliatzen bada ere, salbuespen anitz ageri da: zehazki, 16 <tzi> kasu, eta 13 <tci>; bai eta 25 <tze>, 290 <tce> artean. Salbuespen hauek eskuizkribuan topatu nahi badira, emaitza honakoa da. Sistematikoki, arestian aipaturiko Larramendi erara jokutzen du Añibarrok salbuespenik gabe. Jakinik eskuizkribuaren bertsioa tarteko idaztaldi bat dela ere, adibideen banaketak ausazko ematen du aditzera inprimategian gauzatuko zen zerbait behar zuela gehienetan <tce> eta <tci> egitea, eta ez autorearen berariazko hautua.

F. Elizalde, *EL1*-eko txistukari sistema oso antzekoa dakar; halere, afrikarietan ezberdintasunak azaltzen ditu: frikari apikariarendako <s, ss> grafemak dakartza: *Confessore* (1), *Sanduaren* (4); frikari lepokarietan, *e, i* aurretik <c> bainan beste testuinguruetan <z> *apecec* (1), *lembicicoa* (2), *daucazu* (3), *eguinzazu* (4); afrikatu sabaikaria <ch>-z: *Echean* (1), *Echidetea* (25). Afrikari apikari zein lepokarietan,

batzuetan ez ditu frikariak afrikatuatarik bereizten eta fonema ezberdinak dakartza; afrikari apikarietan <s, ts, ch> grafemak tartekatzen ditu: *jausi* (6), baina *jauchi* (38), *onesicea* (8), baina *onetsiceco* (89), *jaichi* (39), *eracutsi* (7), *autsi* (37); afrikari lepokarietan, <tc, c> *e, i* aurretik eta <tz, z> beste testuinguruetan: *explicatceco* (1), *Salcen da* (1), *otoiz* (7), *viozaren* (3), *itzetatic* (3), *Salvazaizala* (4), *libera gaizazu gaicetic* (5). Hortaz, txistukarien adierazpen grafikoak F. Elizalderen hautuak azterturiko beste testuak baino finkatugabeago daude, Euskara Zaharraren eta LEMaren arteko trantsizioan.

Mikelestorenak “Mendibururen *-tce, -tci* (*urtcen, guelditcea, utci*) eta Larramendiren *-tze, -tzi* direlakoan aurrean, [...] —estatistika zehatzik egin gabe ari gara — erdizka bildu zituen edizio honetarako formak, hau da, iparrorratz koherenteegirik agertu gabe.” (Salaberri Muñoa 2019: 36). Bestetik:

[...] elkarketetan afrikatu gabe ere gera daitezke frikariak [...] Mikelestorenarenetan (*enzun/entzun, etorze/etortze, zorzi/zortzi, zabilza/dabiltza, cembilzala/cembiltzala, ilzece/iltcen...*). Alabaina, agertzen diren kasuetan lesakarrak bederen ez du salbuespenik egiten: *bearsu, indarsu, persona, pensatu, manso, consagratu...*” (ibid).

J. M. de Elizaldek, Larramendiren sistema bera darabil, bi salbuespen soilik <tce> grafiarekin: *uquitcen* (1992: 982) eta *arguitcen* (1992: 991). Ozen osteko testuinguruetan, afrikatuak ugariak dira, frikariekin lehian.

2. 2. 11. <g>. Urgellek dioenez (1987a: 422) “G (+a,o,u=/g/; +e,i=/x/ eta ez da J-rik), GU (+e,i = /g/)”. Honetan ere, hau berau da NDot-en darabilen sistema; bai eta beste hiru dotrinek ere.

2. 2. 12. <f>

<f>-ari dagokionez, Añibarrok erabilera osoa egiten du dotrinan, bere beste lanetan bezala. F. Elizaldek, Mikelestorenak zein J. M. de Elizaldek <f>-aren erabilera zabala egiten dute eta, bereziki maileguetan kausitzen da berau.

2. 3. Behin behineko emaitzak

Ondoren egindako azterketa laburbiltzen duen taula bat dakargu, hautu grafikorik esanguratsuenak bilduaz eta lan ezberdinak erkatuaz (Urgell 2001: xxxv, lehen bi zutabeak; besteak nireak):

2. Taula:
Grafiaren konparaketa.

| <i>EL1 (1802)</i> | <i>EL2 (1821)</i> | <i>NDot (1802-3)</i> | <i>F. Eliz (1735)</i> | <i>Mik (1749)</i> | <i>J. M. Eliz (c.a. 1800)</i> |
|-------------------|-------------------|----------------------|-----------------------|-------------------|-------------------------------|
| <v>, | | <v>, , sb | <v>, | <v>, | <v>, |
| <h> | ø | ø | ø | <h>, guttiago | <h> |
| <i> bokal artean | <y> | <i> | <y> | <y>, <i> | <y>, <i> |
| <j> = /j/ | <y> | <j> | <j> | <j> | <y> |
| <mp>, <mb> | <np>, <nb> | <mp>, <mb> | <mp>, <mb> | <mp>, <mb> | <mp>, <mb> |
| <qu> | <k> | <qu> | <qu> | <qu> | <qu> |
| <ss>, <x> = /š/ | <sh> | <ss> | <ss> | <ss> | <x> |
| azentua | ø | azentua, sb | ø | ø | ø |

Horrekin, Urgellek (2001: xxxvii) dioen bezala:

Haatik, aldi berean, badirudi badela daturik, LoraS eta NDot-en azken idaztaldia EL-arena baino lehenagokoa dela baieztatzen modukorik. Alegia, baliteke idazlan zaharrenen eta EL1-en artean tarteko garai bat egotea.

Azaldutakoaren ostean eta Añibarroren garapena ezagutuaz, ez dut daturik topatu ideia hori indartzen duenik. Oso garaiko idaztaldiak behar dute izan, antzekotasunak nabarmenak direla. Are gehiago, badirudi zenbait gauzatan *EL1* baino garatuago dabilela, *NDot*; halere, ez da nahiko daturik gertuko azken idaztaldiak izan ziztela ondorioztatzea baino. Oro har, Urgellek esandakoarekin (1987a) bat dator *NDot*-eko grafiak *EL1*-eko garaiko azken idaztaldia izan zuela.

F. Elizalde, Mikelestora eta J. M. de Elizalderi dagokienez, hirurak gertu daude *NDot*-en hartu hautuez, laurak konpartitzen dituzte hautu grafikorik oinarritzkoenak, aztertutako alderdi grafikoek erakutsi gisara. Halere, salbuespenik behinena F. Elizalderen testua da, zeinetan hainbat hautu grafikok erakusten baitute (§2.2.10) hautu modernoagoen bidean dela bainan aurreko garaieko trantsizioan, LEMko testuen ezaugarriak osorik betetzen ez dituela oraindik.

3. *Eta/edo* egiturak

3. 1. Sarrera

LEMren garaian, “Euskal Herrian garbizaletasun neurritsu bat hedatu zen, euskal lexikoaren aberastasuna eta emankortasuna ustiatu nahi zituena, baina mailegu zaharrak onarturik eta berriei atek itxi gabe, [...], eta maila guztietako idazleak hartuko dituen” (Urgell 2018: 628). Hala eta guztiz ere, garaiko idazle gehienak erlijio gizonak, euskaldun jende apalarentzako erlijio-liburuak idazten dituzte gehienbat, eta hauetan “hizkuntza apal bat” darabilte (Urgell 2018: 633). Hortaz, “Idazlanaren izaerak erabakitzen du neologismoen neurria (Sarasola 1986): idazkia jasoago eta hitz berri gehiago” (Urgell 2018: 634). Dotrinetan orduan, ahoz irakasteko xedea dutelarik, eta Añibarro bezalako idazle zainduaren NDot-en kasuan garbizaletasun zantzuak aurkitzea espero dugu.

Aipaturiko “hizkuntza apal” horretan, “[...] erdarakadak gaitzetsita daude — nahiz idazle batzuk besteak baino nasaiagoak izan—, baina mailegu tradiziozkoak zein beharrezkoak ez; hitz berriak eta beste euskalkietako hitzak tentuz erabiltzea ere zilegi da” (Urgell 2018: 633). Hitz berri horiek testuetan sartzeko, “idazle zainduak teknika ezberdinak baliatzen dituzte [...]” (Urgell 2018: 635). Horien artean ohikoa eta orain aztertzerako noana, “hedatu zen bi sinonimo *edo*-z lotzeko ohitura, maizenik mailegua eta hitz berria, hala nola *izkunde edo lengoaiea* (Cb, G), *gogarte edo meditaziño* (Añ, B), *eginarteko edo artifizial* (Dv, L), *aitzinegüineko edo bezperako* (Ip, Z)” (Urgell 2018: 635). Bide batez, “Gutxiagotan *eta* ere erabiltzen da, hala nola *agur eta adorazioak* (Lard)” (Urgell 2018: 636). Hortaz, *eta/edo* egiturak deitu ditut hauek. Hauen azterketa, hitzak noiz bertakotzen diren ikertzeko baliagarri direla erabili da (cf. Lakarra 2022).

Egitura hau, zeina “hizkuntza estandarren hasieran” (Urgell 2018: 635) ohiko zen beste tradizioetan, jendearengan arrunt eta ia bakar ziren erdarakadak gaitzesteko eta hitz berriei ordeztzeko bidea bilakatu zen. Finean, idazle zainduen lexikoa berritzeko erremienta. Esan behar, erdarakada horiek ordeztzeko, mailegu “garbiagoak” zein beste euskalkietako hitzak ere azal zitezkeela eta horietako batzuk agertzea espero dugu azterturiko *eta/edo* egiturotan.

Eta/edo egiturei erreparatuko diegu atal honetan, beraz. Hauek, garaiko literatur hizkuntzaren eraketan ardatz diren atzizkidun hitzen eta maileguen bidea marrazten

lagunduko digute, noiz diren normaldurik eta noiz bidean, edo hasiberritan. Hemen, euskal hitzen (oro har hitz eratorrien) normaltzeko saiakera aztertuko dugu *NDot*-en zehar; autorearen hitz garbiagoak txertatzeko saiakera non hasi eta bukatzen den.

Maileguak eta hitz eratorriak elkarren alboan sinonimo edo balioko hiztzat paratzea ohiko da *NDot*-en, are Añibarroren lan guztian ere, baina ez hor soilik, azaldu bezala. Hitz eratorriek haien isla garrantzitsua dute testuan zehar egiturotan, izan ere, testuan zenbaturiko hitz atzizkidunen (105 ingurutik) %40 edo ageri da *eta/edo* egitura batean txertaturik (40 bat).

Honenbestez, interes berezia dute egiturotan txertaturiko formek; kopuru esanguratsua ez ezik, aipaturiko idatzizko hizkuntza sortzeko bidea marrazten laguntzen dutelako, euskalkien mugetatik harago eta literatur hizkuntza finkatuaz. Euskalkiak presente badira ere uneoro, *NDot* gisako ariketak Añibarroren partetik erakusten du, predikari gisa ezagaturiko hizkuntza eta hizkera ezberdinak menderatzeaz landa, idatzizko hizkuntzaren eraikuntza eta baliatzea ere gogotan zuela bere jardunean. Funtsean, amankomunetik asko zuen hizkuntza eta jarduera anitza mamitzen zebiltzala; honen hasikinak, Añibarroren gisako eta lehenagoko idazleengan kausi ditzakegu, XVIII-erdialdetik abiada hartutako prozesuan, hain zuzen ere.

Azterketa hau zedarritzearren, tipologia ezberdineko *eta/edo* egiturak aztertzea orrialde gehiegi hartuko zituelako, kanpoan geratu dira, noski, mailegu ezberdinak biltzen dituzten egiturak eta apika garrantzitsuago, euskal forma garbiagoak biltzen zituztenak, nahiz jorratzea merezi duten inondik inora.

Informazioa antolatzerako orduan, sail ezberdinak eratu ditut *eta/edo* egituren tipologiari erreparatuz; honek bere baitan biltzen dituen formen nolakotasuna ardaztat harturik, *eta/edo* egituraren aurretik edota ondotik zein agerpen duten aintzat hartuz. 61 *eta/edo* egitura aztertu ditut guztira.

3. 2. Azterketa⁸

3. 2. 1. *Eta/edo* egituraren baitan soilik

⁸ Ondoren emanen dugun informazioa horrela ulertu behar da, adibidez 17: *Misterio* (20, 79) *edo sinisgairic*: *eta/edo* egitura hau 17. orrialdean (behin, beraz) ageri da dotrinan; *misterio* forma beste bitan (20. eta 79. orrialdeetan) bere kasa ageri da testuan, *sinisgairic*-en laguntzarik gabe; eta *sinisgai* forma soilik *eta/edo* egituraren paraturik ageri da testuan.

Lehenik, hona ekarriko ditut lehia asko azaltzen ez dutenak: *eta/edo* egituran soilik azaltzen diren formak, mailegu eta eratorria elkarrekin doazenak, bata bestearengandik aldendu gabe. Izartxo nabarmendurik agertzen da hemendik aurrera atal orotan forma garbiagotzat emana.

14: divisioa, edo *berecoiera

46, 46 (alderantziz): *jatorrizcoa, edo Originala

59, 64: Castidadea, edo *Garbitasuna

42: bisitatzea, edo *icustea

42: errescatatzea, edo *ascatu eraguitea

42: *bidezco, edo erromesai

48: *eguinvide, edo obligacioetatic

61: Prudencia edo *Zurtasuna

45, 61: TEOLOGAlac, edo *Jangoicoa ganonzcóac (45: Vertute Teologalac, edo *Jangoicoa gana zucen beguiratcen duenac).

64: Continencia, edo *beguirapena

62: POTENciac, edo *Almenac

Ikus dezakegu sail honetako egituretan, hamaika forma garbiagoetan, soilik hiru ez direla *VB*-n ageri (*berecoiera*, *beguirapen* eta *teologal*-en aldaerak). Azkenekoek badute nolabaiteko tokia *VB*-n baina aurreko biek ez dute gaztelerazko sarrerarik. Gehiago, gaztelaniazko formak oro har onarturik daude *VB*-n (sarrera dutenen artean), *potencia*, *original* salbuespenekin. Guztien artean, hiru forma garbiagoek ohiko agerraldiak dituzte *eta/edo* egituraren barnean beste autore eta lanetan, bereziki Larramendi ostekoetan.

Hamaika adibidetik, soilik hiru egitura errepikatzen dira testuan, besteek agerpen bakarra dute. Hamaikatik zortzitan agertzen da forma garbiagoa bigarren lekuan (*jatorrizco*-ren kasuan, lehenengoan bera ageri da lehen tokian eta ondoren, 2.ean). Azterturiko guztietan *edo* partikula erabiltzen da, ez *eta*-rik.

3. 2. 2. *Lehenik eta/edo egituran, gero aske*

Gatozen hurrengo sailarekin: lehenik *eta/edo* egituraren barnean agertzen direnak eta gero aske datozenak biltzen dituenera, alegia.

a) Lehenik egituran, gero aske garbia:

29: peticio, edo escari (29ond⁹, 30(2), 31(2), 32) escabide (30))

b) Lehenik egituran gero aske mailegua:

23: Ungitua (23ond), edo ganzutua

17: Misterio (20, 79) edo sinisgairic

⁹ *Escari* formaren agerpen hau, *eta/edo* egitura *ondoren* ageri da.

65: pobre (66), edo premiadunac
 46(2): Eriozcoac, edo mortalac (47(2), 50, 51(2), 52, 57(3))
 56: Soberbia (58, 59), andiuste (60), edo goitura
 61: SENTIduac (62), edo Cenzunac
 65, 67: Justutasun (66), edo Zucentasunaren
 57: Gula (58, 59), Sabeldarraiotasuna (OEH)

c) Lehenik egituran gero aske biak (garbia gailendu): -----

d) Lehenik egituran gero aske biak (mailegua gailendu):

57: Envidia (58 1, 59) edo icusi ecina (58 2)

e) Lehenik egituran gero aske biak (parekotsu):

65, 66: mansoac (66ond), edo berachac (79)
 57, 58; 38: Lujuria (59), edo desonesqueria (38); 38: Araguizco becuric (7), edo desonezquericoric

Lehen azpiatala urriena da. Soilik kasu batean agertzen da *eta/edo* egituraren baitan forma bat gero bere kabuz, mailegatuari gailentzen zaiolarik.

Nabarmenki gailentzen dira gero aske ageri den mailegua duten *eta/edo* formak. Aztertutako egitura guztietarik (16), lauretan *eta/edo* egitura errepikaturik da. Kasu guztietan forma garbiagoa *eta/edo* egituraren bigarren tokian ageri da. 12 kasuetarik, soilik hiru hitz garbiago ez dira *VB-n* ageri: *premiadun*, *justutasun* eta *sabeldarraiotasun*. Maileguei dagokienez, 12tarik 5etan ez dira *VB-n* ageri: *peticion*, *mortal*, *sentidu*, *gula*, *luxuria*. Aldiz, *eta/edo* egituretatik, 12tik 10 bat errepikatzen ziren beste autoreengan.

3. 2. 3. Lehenik aske, gero eta/edo egituran

Atal honetan, lehen agerraldia aske duten formak eta gero *eta/edo* egituran biltzen direnak aztertuko ditut. Bi azpiatal izango dira: aske ageri eta egituran bildu; eta aske, egituran eta berriz aske datozenak. Lehenekin hasiko gara, ibilbide motzagoa baitute testuan zehar.

3. 2. 3. 1. Lehenik aske, gero eta/edo egituran

f) Lehenik aske garbia, gero egituran:

56: *Ezcontza (44) edo Matrimonioco
 , 39, 42, 45, 57, 63, 73: progimo *lagun (7leh¹⁰, 7leh, 48)
 42-43; 65: misericordiazcoac, edo *urricarizcoac (5); 65: misericordia, edo *urriqitasuna (63);
 urricaritasun (5, 73); urricamendu (63), urricaritsu (6, 65, 67, 81), urricari (80)
 18: distinto, edo *beressiac (17)

¹⁰ Lagunen agerpen hau *eta/edo* egitura aurretik azaltzen da.

g) Lehenik aske mailegua, gero egituran:

- 12: santiguatcea (11), edo *Aitarene eguitea
- 69: Confesio (44, 46, 47, 47, 50(2)), edo *Aitormen generala
- 71: Acto (70), edo *Egicaiac
- 61: Templanza (59) edo *beguiratua izatea
- 48: Essamina (47) *billacuntza
- 61: Justicia (36), edo *Ciurtasuna

Lehen multzoan, hasieran formarik jatorrena aske eta ostean *edo/eta* egitura batean bilduta egiten dute bide forma hauek. Azterturiko hamarretarik, *eta/edo* egitura bakarra errepikatzen da: *misericiordiazcóac, edo urricarizcoac*. Forma garbiagoak egituraren bigarren tokian agertzen dira beti, kasu batean izan ezik: *Ezcontza edo Matrimonioco*. *VB*-n sarrera duten guztien artean, lau mailegu ez dira ordaintzat hartzen: *matrimonio, misericordia, santiguatu* eta *acto*. Bederatzi egituren artean, zazpi errepikatzen dira beste autoreengan.

3. 2. 3. 2. Lehenik aske, gero eta/edo egituran, osteras aske

Ondorengoa dugu azken azpiatala. Honetan, formen ibilbidea luzeena da, lehenik aske ageri dira, gero *eta/edo* egituran baturik eta gero berriz aske. Ikusiko dugunez, kasuistika zabalena ere badute, aske diren formak garbiak ala mailegatuak izan.

h) Lehenik aske garbia, gero egituran, gero aske garbia:

- 21: naturaleza, edo *izate (20, 44, 73)
- 38: *Garbiac (19, 21, 23, 65, 67), ta castoac
- 29: Pater noster, edo *Aita gurea (3, 3, 15, 28, 29, 53, 72, 76).
- 48: Dolore, edo *Damua (askotan)
- 56: *Cuticia (40, 58, 59), edo Avaricia;
- 58: *Aserradura (57; 59, 66: aserrea), edo cólera

i) Lehenik aske garbia, gero egituran, gero aske mailegua: 67: *griña (60), ta pasio (71, 77, 81)

j) Lehenik aske mailegua, gero egituran, gero aske garbia:

- 7: *cuticiatcea (40) edo deseatcea (7aur).

k) Lehenik aske mailegua, gero egituran, gero aske mailegua:

- 44: señale (3, 11, 11, 12, 81) *aguiri
- 51, 51, 52: venialac (46, 52, 52, 57), edo *arinac
- 62: Memoria (22, 22, 62ond), edo *Oroipena
- 11, 16: fedea (askotan), edo *sinistatcea
- 49: *calte-damua: bildur-damua (atricioa (49leh (2), 50 (2))

l) Lehenik aske garbia, gero egituran, gero aske biak (garbia gailendu):

66: Bienaventuranza (68), edo *Zoriontasúnac (65, 68 (*HH*-ko teknika erabiliz))

48, 50: Propositu (49), edo *gogoa (39, 38, 47, 50, 52, 59, 67, 69)

m) Lehenik aske garbia, gero egituran, gero aske biak (mailegua gailendu):

n) Lehenik aske mailegua, gero egituran, gero aske biak (garbia gailendu):

48: cumpli (51) edo *betetcea (4, 24, 32, 33, 50, 65, 74)

ñ) Lehenik aske mailegua, gero egituran, gero aske biak (mailegua gailendu)

18: Trinitate (12, 22, 25, 54) edo *Irurtasun (78) (lehenik aske mailegua)

50, 70: Contricioa (47, 47, 49, 49, 50ond) edo *Ondamua (49leh); 70: ACTO CONTRICIOcoa, edo Onezco damua

o) Lehenik aske biak, gero egituran, gero aske biak (garbia gailendu): -----

p) Lehenik aske biak, gero egituran, gero aske biak (mailegua gailendu):

19: *Eguillea (8, 37), edo Creatzallea (4, 70, 78)

Ikusi gisara, hainbat azpiatal sartu ditugu hemen. Aske diren horien tipologiaren arabera (garbia vs. mailegatua) eta bigarren aldiz aske direnean, biak aske badira, bata ala bestea elkarri gailentzen zaion ala parean geratzen diren.

Azterturiko azken talde honetan, 24 egituretik soilik hiru errepikatzen ziren testuan zehar, horietarik bat hiru aldiz. Beraz, 20 egituretatik, soilik 5etan ageri da forma garbiagoa mailegatuaren aurretik: **Garbiac ta castoac*, **Cuticia edo Avaricia*, **Aserradura, edo cólera*, **griña, ta pasio*, **cuticiatcea edo deseatcea* eta **Eguillea, edo Creatzallea*. *VB*-ko sarrerako formen artean, soilik eratorri bat ez zetorren bertan: *sinistatzea*. Maileguen artean, 20tik 5 ez zetozen *VB*-n: *pater noster*, *memoria*, *atricio*, *bienaventuranza*, *contricio*. 20 egituretatik, 15 bertze autoreengan ere agertzen dira.

Hemen ere, mailegua ostera eta lehenik aske agertzen duten *eta/edo* egiturek gailentzen dira, beraz, maileguk (Añibarrok bere hiztegian paratu zein ez, nahiz eta oro har bai) eratorriek baino agerpen gehiago dutela agerikoa da.

3. 3. Behin behineko emaitzak

Azterketaren ostean, hainbat ondorio atera daitezke; esaterako mailegatu hitzez. Azterturiko adibide guztien artean, gehiengoak paratzen ditu Añibarrok ordaintzat bere hiztegian, batzuetan are lehen ordaintzat. Ikusi dugunez, *eta/edo* egituren ibilbidean, egiturek ageri ostean ohikoen paratzen du Añibarrok mailegatua berriz, paratzekotan; *VB*-n ordaintzat hartzen ez duen formarik ere bai, mailegatua lehenetsiz. Hortaz, testuan

ezinutzizko hitzak direla ikusten da, baliaturiko hizkeran erroturik nolabait; hauek gailentzen baitira *eta/edo* egituren ibilbidean eta beraz testuan. Horrek ez du esan nahi, baina, testuaren generoa gogoan hartuz, lexikoaren trataera aipaturiko bere garaiaren ezaugarriekin bat ez datorrenik.

Izan ere, testu honetatik at, diakronian, maileguon presentzia jaitsiz doa denboran zehar. Hasieratik testuetan ageri baziren ere (iparraldeko zein hegoaldeko tradizioetan, bederen), XVIII-ko bigarren erdialdetik XIX-ko akabura, gainbehera nabarmena jasan dute aztertutako maileguok, eratorriekin proportzionalki alderantziz gertatzen den bilakaerarekin batera.

Oro har Añibarrok *VB*-n paratzen duenak eta *NDot*-eko mailegu zein eratorriekin azalduak bat egiten dute, aztertutako forma gehienek *VB* haien tokia dutelarik, eratorriek maileguak baino gehiago halere; kohesio handia erakutsiz *VB*-rekiko, beraz. Beste hiru dotrinekin erkatuz, Añibarrok gainerakoek batera baino *eta/edo* egitura gehiago baliatzen ditu, bai eta tipologia ezberdinekoak haiek (Mikelestorena eta J. M. Elizalde bereziki) baliatzen dituztenez.

Ikusi dugu nabarmenki, *eta/edo* formetan agertu hitz eratorriek goranzko bidea egiten dutela denborak aurrera egin ahala (ez berariaz aztertu testu beronek aurrera egin ahala); XVIIIaren bigarren erditik gora, *eta/edo* egiturak ugaldiaz doazela eta maiz XIX akabura arte irauten dute, beraietako partaideak XX. mendea hasi orduko normaldurik agertzen direlarik. Gainera, zenbait idazlerengan kontzentratzen dira egiturek: arestian aipatu Kardaberaz, Mendiburu, Añibarro, Gerriko, Agirre Asteasukoa, Astarloa eta Arruerengan bereziki.

Añibarroren *eta/edo* egitura anitzen aurrean, Mikelestorenaren eta J. M. Elizalderen hitz berriak txertatzeko joera apalagoa bada ere, darabiltzaten *eta/edo* egituretan, maizago paratzen dute eratorria ez den baina euskal forma garbia (edo antzina bertakotua), eratorria baino: kasurako Mikelestorenarengan *neque edo dolozco* (14, 89), *Oñace ta dolozco* (87); J. M. Elizalderengan: *handia, edo mortala* (42); *chumeac edo venialac* (42). Honek erakusten du, garbizaletasunaren kezka eratorriekin salbatzeko joera ez dela aukera bakarra eta ezta baliatuena ere aztertutako idazleen artean; Añibarrorengan eratorpena gailentzen bada ere, Mikelestorenak zein J.

M. Elizaldekin bestelako bideak hobetsi zituzten lexikoa berriztatzerakoan, eratorpenaz aparte.

F. Elizaldekin, *eta/edo* egituraren adibideren bat azaltzen du: *Pater nosterra, edo Aita gurea* (5); *Temploan, edo Elizan* (48); *parte, edo zati* (73); *Graciac, edo escerrac* (77); *becatu Capitaleac, edo burucoac* (83). Hauek, Mikelestora zein J. M. Elizalderen *eta/edo* egituren tipologiatik gertuago egoteaz aparte, Mikelestora ageriko maiztasunaren erdia inguru azaltzen dute. Mikelestora J. M. Elizalderi dagokionez, maiztasun handiagoa ere azaltzen du, nahiz gertuago egon. Añibarroengan somatzen da aldaketarik handiena, aurreko guztiak batera baino egitura gehiago azaltzen baititu, bai *eta* tipologia ezberdinekoak ere.

4. Maileguak

4. 1. Sarrera

Maileguen azterketari dagokionez, horren mugak azalduko ditut lehenik. Irizpiderik behinena finean mailegu interesgarriak soilik aztertzea izan da, arrazoi funtsezkoak zedarriturik. Gauzak horrela, literatur hizkuntzaren bilakabidea izan dut aztergai dotrina honen azterketa egiterakoan, Añibarroren obrari eginiko azterketari gehitzeko eta garatzeko. *Eta/edo* egituretan azaltzen diren maileguei eman diet lehentasuna.

Ikustekoa da, *bake* gisako mailegu batek, literatur hizkuntzaren bilakabideari buruz ezer gutxi gehi dezakeela, 17 edo 18 mende lehenagotik bertakotua zen aldetik (Mitxelena 1974: 185). Hortaz, mailegu asko dotrinan azaldukoak, antzinatik euskarararen sistema fonologikora moldatuak eta euskal lexikoan txertaturik (Mitxelena 1974: 186) azterketatik kanpo utzi ditut.

Dotrinaren generoari so eginaz, badira beste hainbeste mailegu interesik ez zutenak hemen. Erlijioari loturiko hainbat mailegu gordin, *eta/edo* egituretatik at paratuak oro har, ibilbide oso konkretua azaltzen dute testuetan oro har XX-ra arte, genero erlijiosoen gainbeherarekin batera ia desagertzen diren arte. Elizari eta mezari eskusiboki loturiko mailegu gordinak, gerora erabilera gabeak hizkuntzaz kanpoko arrazoiengatik, azterketatik kanpo geratu dira. Horrelako antza hartzen duten maileguak ere badira *eta/edo* egituretan paraturik, baina. Halere, berauen ibilbidea besteen antzekoa bada ere, euskal ordain batekin paratuak izateak interesgarri egiten ditu: idazleek hitzok hautatzea euskal ordainak emateko eta horiek normaltzeko ariketa burutzea, literatur hizkuntzaren bilakabideari dagokionez interesgarri egiten ditu, aipaturiko besteak ez bezala.

Maileguak, eratorrien gisara, nabarmen azaltzen dira *eta/edo* egituretan; kontatu ahal izan ditugun 225 mailegu ingurutik (arestian aipaturiko *bake*-ren gisakoak ez direnak zedarritu nahian) 50 inguruk dute agerpena *eta/edo* egituretan, %22 ingurura hurbiltzen den zifra. Zifra esanguratsua da, halere, aipaturiko arrazoiengatik, normaldu edo bertakotu nahi zituzten hitzekin batera ematen dituztelako, jendeak ezagutu eta erabiliko zituelako, eta halere euskal ordaina emateko entsegua egin zuten hainbat

idazlek Larramendiren itzalpean. Arestian azaldu gisan, *eta/edo* bidezko ariketa, funtzio anitz dituen, denboran muga batzuk azaltzen ditu, egile konkretuetan.

Gauzak horrela, hainbat mailegu dira dotrinan *eta/edo* egituretan paraturik, erlijiozkoak bereziki, generoa dela eta, baina baita bestelakoak ere. Hauen ibilbidea kokatzera noa orain, bai denboran zehar, bai zeintzuk baliatzen dituzten eta noiz arte, baita Añibarroren lanean duten tokia ere (bere hiztegi propioan eta gainerako lanetan paratzen dituen) *eta/edo* egiturei segika. Hortaz, talde hauetan banatu ditut aztertu ditudan maileguak: *eta/edo* egituran soilik agertzen direnak; egituraren ostean aske direnak eta *eta/edo* egituraren aurretik doazenak soilik. Talde bakoitzeko guztiak zerrendatuko ditut.

Interesgarri zaizkit, alde batetik, *eta/edo* egituraren ostean aske diren maileguak, testuan duten ibilbidearen berezitasuna dela eta. Diakronikoki horiekin gertatu dena (hots, asko baztertu izan direla hitz eratorrien mesedetan), sinkronikoki testuko maileguekin gertatuarekin erkatuaz aztertzea. Hots, forma eratorria eman ostean, mailegua erabiltzen jarraitzean testuan horretarako arrazoi berezirik baden haien nolakotasunean.

Bestetik, *eta/edo* egituretan soilik ageri diren maileguak, literatur hizkuntzaren eraketa prozesuan, Añibarrok normaldu nahi dituen hitzen parean soilik paratzen diren maileguen nolakotasuna ikusteko. Arrazoirik baden, gehiengoarekin ez bezala *eta/edo* egituratik at ez paratzeko, aurrekoen multzoarekin ez bezala, forma eratorriarekiko testuan Añibarrok azaltzen duten ezarritako atxikimenduaren atzean ezer den ikusteko.

Azkenik, *eta/edo* egituraren aurretik agertzen diren maileguak ekarriko ditut. Hauetan, *eta/edo* egituraren ostean azaltzen ez direnak zedarrituko ditut. Ikusteko da ezberdintasunik baden aurrekoekin haien ibilbidea justifikatzeko, *eta/edo* egituretan paratu ostean, forma garbia haiekiko gailentzeko, aurreko kasuetan ikusi ez bezala. Bide batez, kopuru aldetik aurreko bi taldeak antzekoak izanik, honetan askoz forma gutxiago kausitzen ditugu. Horrek bere horretan badu zer esanik, orokorrean testuaren barnean maileguk gailentzeko duten joera nagusiagatik.

4. 2. Maileguen zerrenda

4. 2. 1. Eta/edo egituren barnean soilik paraturikoak:

divisioa, (becatu) originala, castidadea, bisitatzea, errescatatzea, obligacioa, Prudencia, Teologala, Continencia, potencia, petizio, Matrimonio, misericordia, distinto, naturaleza, castoa, Pater noster, Dolorea, Avaricia, cólera.

4.2.2. Eta/edo egitura ostean aske paraturikoak:

Ungitua, Articulo, pobre, mortalac, Soberbia, sentiduac, Justutasun, Gula, Envidia, mansoac, Lujuria, pasio, señale, venialac, Memoria, fedea, atricioa, Bienaventuranza, Propositu, cumpli, Trinitate, Contricioa, Creatzallea.

4.2.3. Eta/edo egitura aurretik aske paraturikoak (eta ez egitura ondoren):

santiguatzea, Confesio, Acto, Templanza, Justicia, Essamina, deseatzea.

4.3. Behin behineko emaitzak

Zedarrituriko multzo ezberdinei erreparatuz, ikusten da erlijio-testuinguruko maileguak gailentzen direla hiru taldeetan proportzio antzekoetan. Nabarmena da ere, *eta/edo* egitura ostean aske paraturiko maileguen nagusitasuna. Aipatzekoa, testuan zehar, maileguak forma eratorriei gailentzen zaizkie agerraldi kopuruari dagokionez.

XVIII erdialdetik aurretiko tradizioan ageri dira nabarmenkiago, hegoaldeko testuetan maizago iparraldean baino, salbuespen bakan batekin aztertuturikoen artean. Larramendi aurreko autoreengan, maileguok ez dute *eta/edo* egiturekin agertzeko ohiturarik, teknika hau Larramendi ostean agertzen da. Iparraldeko lapurtera klasikoko autoreek noiz edo noiz *edo*-rekin batera eratorria eta mailegua paratzeko joera bazterrekoa azaldu arren. Larramendik haiei, besteren artean (Urgell 2018: 579) ikasitako hitz eta atzizkiak ez ezik, hauek *eta/edo* egituraren bidez emateko bidea ere ikasi zien agian. Hala eta guztiz ere, Larramendi aurreko *eta/edo* egituraren aurrekari garbia da Axularren sinonimia hirukoitzaren ariketa emankorra bere testuetan, era askotako hitzak normaltzeko bidearen aitzindaria.

Larramendi osteko autoreekin, maileguon ibilbidea aldatzen hasten dela somatu ahal izan dugu. *Eta/edo* egiturak autore jakinengan pilatzen direla ondorioztatu dugu: Mendiburu, Mogel, Añibarro, Agirre Asteasukoa eta Arrue dira behinenak. Arruerekin bukatu ohi da *eta/edo* egituren joera maileguei dagokienez, guk aztertuturiko hainbat formatan azken agerpen hau pilatzen delarik.

Azterturiko maileguetan, gehienak Añibarrok bere hiztegian bilduak dira ordain gisa, azterturiko hiru sailtan maiztasun antzekoarekin. Honekin ondoriozta daiteke maileguok oro har, baztertze prozesuan zirenak jada, beharrezkotzat jotzen zituztela oraindik euskaraz aritzeko eta euskal hiztunek testuak uler zitzaten. Halere, ideia hori berretsirik, hitzok ordezteko saiakera abian da testu honetan ere, eta bere barneko hitzon ibilbidea zeinahi dela, oro har *eta/edo* egituretan ageriko maileguk diakronikoki erakutsi dute baztertuak izan direla. Testuan zehar maileguk duten nagusitasunari erreparatuz, diakronikoki maileguekin gertatu dena ezin estrapola daiteke sinkronikoki testura, arestian azalduko maileguen beharrezkotasuna dela eta, testua bere garaia atxikiz, maileguak testuan gailentzea besterik ezin uler daiteke, forma garbiak gailentzen badira ere kopuru nabarmenetan maiz.

Halere, maileguok, aztertu bezala, maiz literatur hizkuntza periferikoan gorde izan dira XX. mendera arte; XIX.ko hirugarren laurdenean beranduen agortzen den *eta/edo* egituren erabilera horretatik at. Gauzak horrela, mailegu horien iraupenak soilik azal dezake Larramendiren itzalpetik kanpo geratu diren autoreen ahaleginak, erlijio kontuei hertsiki loturik oraindik, Larramendi aurreko tradizioari loturik, euskal tradizio berriaren erreferentziarik gabe, oro har, Bonapartek editaturiko, Baztango, Busturiko eta Laudioko XIX-ko dotrinetan ageri den lexikoa.

F. Elizalde, Mikelestorena eta J. M. de Elizalderengan maileguk duten tokiari erreparatuz, Mikelestorenak eta J. M. Elizaldek antzeko erabilera azaltzen dute. Hauek, *eta/edo* egiturak azaltzeko joerarekin batera, maileguak hitz garbiagoen parean azaltzeko joera apalagoa dute (§3.3), bai eta eratorriak haien testuetan txertatzeko ahalegina erakusten (§5). Alderik nabarmenena F. Elizalderen dotrinarekin dago; honek azaltzen duen maileguen kontzentrazioa beste hiru testuetan baino zeharo nabarmenagoa da; adibide gisara, bera da bakarra *-mente* atzizkidun maileguak baliatzen dituen, nahiz eta euskal atzizkidun formarekin tartekatu inoiz (Salaberri Zaratiegi, 1994: 30): *solamente* (21, 32), *infinitamente* (29), *milagrosoqui* (37) baina *milagrosamente* (37).

5. Eratorriak

5.1. Sarrera

Urgellek (2018: 635) aurreratu bezala: “LEMko eratorrien ugaritasuna ohiz kanpoko da aurreko garaietan”. Larramendiren ekimenaren loratzearekin du zerikusia horrek; bere hiztegia atzizkien edukian eta emankortasunean inoiz baino aberatsagoa da (Urgell 2004: 251). Bere jarraitzaileek ere eratorpen horri jarraipena eman zioten, ez soilik haien testuetan Larramendiren hitzak paratuz, ezpada bere eratorpen teknikak garatuz; ikertua izan da, kasurako, Pomierren hiztegia, zeinak, Añibarrorenarekin batera, asko zor dion Larramendiren eratorpen teknikari (Iruetagoiena 2023). Finean, “Ez da kasualitatea idazle asko hiztegitik ere izatea” (Urgell 2018: 628). Gauzak horrela, garaiko testuotan eta bai Añibarrorenean ere, testuaren generoak eta berezitasunak ezartzen dioten mugen barnean, askotariko hitz berriak espero ditugu, “norberaren hizkerakoak, bestetakoak, *HH*-koak, liburuetan ikasitakoak eta norberak asmatuak” (Urgell 2018: 629).

Bide batez, Añibarroren eratorriak *VB*-n dute tokiari erreparatuko diogunez azterketan zehar, komeni da honen kokatze kronologikoa egitea hemen, gerora aterako ditugun ondorioak hemen zedarritzen hasteko. Añibarroren *VB*-k data goiztiarra du bere obra osoaren baitan, Urgellek (2001: xxxv) 1804rako bukatutzat jotzen baitu, nahiz eta gerora bizia luzea izan zuen eta aldaketa gehiago jasan zituen; izan ere, kokaturiko Añibarroren aroaz kanpoko, bai aurretik eta atzetik, hizkuntz-ezaugarriak azaltzen ditu (Urgell 2001: xxxvii). Urgellek *NDot*, *VB*-ren aurreko aroan datatzen duelarik (2001: xxxvi), pentsatzekoa da hiztegia *NDot* aurretik hasi eta ondoren bukatu zenez antza, nafarrerari dagokionez antzeko datuak azalduko dituztela; bien sorkuntza hein batean paraleloki eman zenez, dotrinan esperimenterikoak hiztegian sartu zituela, *VB*-k oro har *NDot*-en osteko ezaugarriak azaltzen baititu.

Arestian azaldu bezala, Añibarrok garaiko idazleengan lexiko garbizaletasunak eratorriengan izan zuen garapena aztertzeko, atzizkidun hitzen eta atzizkien azterketa egin dut. Horretarako, hona ekarri dut Añibarroren *NDot*-en, F. Elizalderen, Mikelestorenaren eta J. M. de Elizalderen lanetan atzizkidun hitzen agerraldi kopuruak biltzen dituen taula.

5.2. Taula

3. Taula:

Eratorrien agerraldi kopuruen konparaketa.

| | AGERPEN KOPURUA | | | |
|-------------|-----------------------|------------|-----------------------|----------------|
| ATZIZKIA | <i>N</i> Dot (1802-3) | Mik (1749) | J. M. Eliz (ca. 1800) | F. Eliz (1735) |
| Bide | 1 | ---- | ---- | ---- |
| Dura | 7 | ---- | 2 | 2 |
| Era | 5 | 2 | 2 | ---- |
| Gabe | 6 | 7 | 5 | ---- |
| gai/kai | 3 | ---- | ---- | ---- |
| Garri | 11 | 11 | 2 | ---- |
| Keria | 5 | 4 | 1 | 3 |
| Kizun | 1 | ---- | ---- | ---- |
| Kinde | 1 | ---- | ---- | ---- |
| Kunde | 2 | ---- | 2 | ---- |
| kuntza | 1 | ---- | ---- | ---- |
| Le | 7 | 2 | 2 | ---- |
| men/pen | 5 | 2 | 2 | ---- |
| mendu | 5 | ---- | 9 | ---- |
| Mentu | 6 | 5 | 3 | 15 |
| Tar | 1 | ---- | 1 | ---- |
| Tasun | 55 | 11 | 21 | 6 |
| Ti | 1 | ---- | ---- | ---- |
| Tsu | 8 | ---- | 6 | ---- |
| turia/duria | 1 | ---- | ---- | 1 |
| tza/tze | 4 | 3 | 2 | 3 |

| | | | | |
|---------|-----|----|----|------|
| Tzaile | 8 | 5 | 12 | 6 |
| Tura | 4 | 3 | 1 | ---- |
| OROTARA | 148 | 55 | 71 | 36 |

5. 3. Behin behineko emaitzak

Zerrenda horretan eta azterturiko lanetan gailentzen diren atzizkiak izengileak dira oro har (Urgell 2018: 635): *bide, dura, era, gabe, gabe, garri, keria, kinde, kizun, kunde, kuntza, le, men/pen, mendu, mentu, tasun, tura, tza, tzaile*. Hauen garrantzia eta baliogarritasuna idatzizko hizkuntzaren garapenean azterketan frogatua izan da jada kasurako Iruretagoienaren (2023) lanean; guk hau baliatuko dugu hemen kausituriko emaitzak berresteko. Hortaz, dotrinan lexikoa sortzerakoan izen berriak gailentzen dira beste kategoria gramatikaletako hitzen gaineratik, eratorpenari dagokionez.

Azterturiko atzizkiak kokatzearen,¹¹ Urgellek (2003: 251) Larramendiren *HH*-ko eratorpenaren inguruan ondokoa dakar: “Aberatsa da oso, beraz, eratorpena Larramendiren hiztegian, eta tradizioa eta berritasuna elkartu izanaren ondorio”. Larramendik hiztegian bultzatu zuen lexikoak eratorpenetik asko zuen, bide anitzetatik bildu zuen eratorpen aberastasun hura, euskararen baliabideen bilketa eta azterketaren ostean, hauek aplikatuz eta zabalduz, alomorfoak sortuz kasurako. Aberastasun horren zantzuak azterturiko testuan kausitu ditugu, bereziki izenak eratzeko diren atzizkien datuetan.

Kuntza, mentu atzizkiei dagokionez, hauek Larramendi aurretiko tradizioan lekukoturik ziren jada, eta hiztegian ez ziren asko garatu (Urgell 2003: 219). Azterturiko testuetan oro har *kuntza* soilik Añibarrorengan ageri da; *mentuk*, aldiz, testu guztietan du tokia, bere normaltasunaren seinale. *Kizun, garri* atzizkiei dagokienez, Larramendik *HH*-ean *kizun* hobetsi zuen *garri*-ren gaineratik bere eratorpenean (Urgell 2003: 219), eta gure testuetan ere, *kizun*-en Añibarrorengan soilik agerpen bakarraren aurrean, *garri* F. Elizalde landara beste testuetan emankor suertatu da.

Larramendi aurretik, iparraldeko tradizioan ageri da *men/pen* (Urgell 2018: 579) nahiz horren formak *eta/edo* egituran agertzen diren soilik Añibarrorengan, haien

¹¹ Eratorpen atzizkien funtzioa eta historiaren inguruko informazio zabalagoa kausi daiteke hemen: Lakarra (1985); Sarasola (1986, 1997); Urgell (2003).

normaltasun ezaren seinale garaiko testuetan; Mikelestorena zein J. M. Elizalderengan agerpen apalagoa du atzizkiak, F. Elizalderengan ez da ageri. *Era* atzizkia testu zaharretan ere lekukotzen da (Urgell 2018: 579), Añibarrorengan *eta/edo*-tik at ere agerraldirik dutela honen formak ere; Mikelestorena zein J. M. Elizalderengan ere agerpena du, F. Elizalderengan ez. Bi atzizki hauek erabilera Larramendik zabaldua dirudi, beraz.

Azterturiko testuetan, atzizkirik erabiliena da *tasun*, bere agerraldiak beste guztiak batera berdintzen dituelarik; hau, hiztegian gutxi garaturiko atzizkia izan arren —nahiz eta bere gramatikak izen abstraktuak sortzeko atzizki nagusitzat jo—, azterturiko testuetan atzizkirik erabiliena da, Añibarrorean bereziki; honen azalpena, Larramendik orokorra eta “merke” zen eratorpen bidetzat joz esplizituki hiztegian hainbeste garatu ez izana bide dateke (Urgell 2003: 220), haren eraginpeko egileen produkzioan emankorra suertatu baita, are Larramendi beraren testuetan (cf. Lakarra 2023). Horren ostean *garri*, *le*, *mendu/mentu*, *men/pen* eta *tzaile* dira erabilienak.

Tasun-en parean, hiztegian “[*tasun*] ozta-ozta gailentzen zaio *-keria* beti bakanago izan ohi dena [...]” (Urgell 2003: 231) baina agerraldiak ditu azterturiko testu guztietan. Honetan, *tasun* eta *keria* atzizkien testuetan proportzioari dagokionez, Añibarrorengan 10 aldiz maiztasun handiagoz ageri da *tasun*, *keria* baino eta antzera J. M. Elizalderengan ere. Hortaz, hauetan eratorpen bide erabiliena *tasun* da, nahiz eta *keria* hiztegian maiztasun antzekoan ageri. Mikelestorena zein F. Elizalderengan, *keria* eta *tasun* proportzioa askoz gertuagokoa da (F. Elizalderengan betiere biak marginalagoak dira). Honek, Larramendiren bideen ustiapenean alde handia erakusten du Añibarro, J. M. Elizalde eta beste bi lanen artean, hauek oro har atzizki agerraldi kopuru gertuagokoak dituzte, horretara Larramendiren eratorpen bideetarik hurbilen ibiliaz, *HH*-n ageri diren eratorrien agerpen literalez landa, eratorbideak haien kasa baliatuz. Fenomeno hau Larramendi beraren testuetan ere gertatzen da (cf. Lakarra 2023).

Mendu atzizkiari dagokionez, iparraldeko tradizioan lekukoturik da gehien, nahiz eta Larramendi saihesten entseatzen den; honek agerpen nabariena du J. M. Elizalderengan eta Añibarrorengan apalago. *Mentu* F. Elizalderengan ageri da nabarien,

alomorfo ahoskabearen agerpena diglosiaren eraginpekoa izan daitekeelarik (cf. Rojo 2023: 27).¹²

Aipaturiko atzizkiez gain, Larramendik besteak asmatu edota haien erabilera zabaldu zuen (Urgell 2018: 580), eta haren ondorengoek eratorpen formulak beste erro batzutara ere hedatu zituzten, kasurako bilduriko atzizkietan nabari den alomorfoen bidez, esaterako *gai/kai, men/pen eta mendu/mentu* ere (Urgell 2018: 580). Alomorfoez, Urgellek (2003: 227) adierazten du “alomorfo taldea bitan banatuta dagoela: batetik, “forma kanonikoa” izena emango dioguna, atzizkiaren ohiko ezaugarriak atxikitzen dituen (haien artean ohiko oinarria ere[...]), eta askeago dabilena edo dabiltzanak”; horrekin batera, “forma kanonikoak *-tze* eta *-tzaile*, eta forma askeak *-te* eta *-le*” seinalatzen ditu.

-Tzaile-ri dagokionez, *HH*-an emankortasun handia azaltzen du, *tasun* atzizkiari kontrajarriz; apika Larramendik atzizki hau hedatugabetzat jo zuen eta hiztegian zabalago jorratu nahi izan zuen horregatik. Atzizki honek J. M. Elizalderengan du agerpenik nabarmenena, Larramendiren hiztegia baliatzearen seinale argi gisan (J. M. Elizalde Larramendiren *HH*-a eskuartean zuela ohartzen du Ondarrak (1993: 576)).

-Le atzizkia, izenaren osteko alomorfoak (Urgell 2003: 228) agerpenik ugariena du Añibarrorengan, apalagoa Mikelestorena zein J. M. Elizalderengan; F. Elizalderengan ez da ageri. Honekin, ikusten da Larramendiren hainbat eratorpen bide LEM-ko idazleengan argi ageri direla, F. Elizalde aurreko garaiaren zordun den bitartean.

Añibarroren testuan hitz eratorriak txertatzeko ahalegina nabarmen geratzen da, bai eta hitz eratorrion aniztasuna ere. Azterturiko hitz atzizkidun gehienak Añibarroren hiztegian ordain gisan onartuak dira. Hitzon bidea, halere, maileguen gerizpean da, hauek nagusitzen direlarik testuan, arestian azaldu gisan. Hala eta guztiz ere, hitz eratorriek, bere ondorengo testuetan maileguak ordezteko joera are handiagoa izanen dute (Urgell 1987b), asmo hori hemen azterturiko dotrinan jada martxan da, nahiz eta asmoa guztiz ez burutu, *eta/edo* egituretan txertaturik hitz eratorriei dagokienez behintzat.

¹² Rojok (2023) hori frogatzen du *n/l* osteko herskariaren testuinguruan, Erronkariko gutun-lagin baten azterketa ardatz, nahiz eta forma ahostuna zaharrena izan, Trasken legea berretsiz. Halere, gure laginean F. Elizalderengan ikusi bezala, maiz forma ahoskabea paratzeko joera ageri da beste euskalkietako idazleengan ere, goinafarrerazkoak berariaz aipatzen dituelarik (Rojo 2023: 17, 27).

Erorriak, *VB*-n dagokien tokian izateaz gain, bat datoz maiz, parada azaltzen duen orotan ageriko nafarrerazko datuak eta hitz erorrietan erro zein erorriekin. Bestetik, *VB*-en ez datozenean (baita bertan datozen gehienetan ere) *HH*-an topatzen ahal da hauen arrastorik, jada emandako haren euskal ordainen gainean eginiko erorri berriak ageri baitira Mendiburu, Añibarro eta Mogelen gisakoengan, bai eta aztertzen ari garen lanean ere. Hortaz, *HH*-tik at diren forma anitz, hiztegian zedarrituriko lexiko sortzearen ereduari jarraituz egin direla bistakoa da azterketaren ostean; Larramendi ondoko eta garaikide izan ziren idazleek eredu horrekin lan egin zutelarik.

Denboran zehar bestelako bidea izan dute hitzok baina, garaiko idazleengan ere antzeko *eta/edo* testuinguruetan errepikatzen direlarik XVIII erdialdetik XIX akabera arte maiz, hurrengo tradizio literarioaren hasierarekin bat. Azkenengo hauek, hitz erorriok baztertu —aurreko tradizioak sortuak direlarik nabarmenki— edo normalduta zeudelako erabiltzen jarraitu zuten, azterturiko hitzen artean gehienok hartzen duten bidea delarik azkenekoa, erlijio-esparruari hertsiki loturik ez direnek, bereziki.

Taula honetan ikus daiteke lau lan ezberdinen artean Añibarrorean pilatzen dela atzizki gehien, baita atzizkidun formak ere, oro har. J. M. de Elizalderenean ikusten dugu Añibarrorenarekin antzekotasun gehien, biak asteteak eta ia garaikideak (§ 1.1.4), hizkera antzekoa islatzeko bide bertsuetatik antzeko ebazpenak topatu izana ez da harritzekoa. Gogoratu behar da, orobat, Mikelestorenaren testua beste hirurak ez bezala, dotrinaren tipologiarekin bat ez datorrela guztiz (§ 1.1.3), eta beraz, honetan kausituriko lexikoan LEM-ko testu landuagoetan baino hitz berri gutxiago kausitzea espero dela. Halere, Mikelestorenaren kopuruak J. M. Elizalderengandik gertu daude; Añibarrorenak baino apalagoak, noski, hau Larramendiren jarraitzaile sutsua izateaz gainera, gramatikagilea eta hiztegiagilea ere baitzen eta, beraz, Larramendiren eratorpenaren ezagutzaileago.

Halere, alderik nabarmenena Mikelestorena, J. M. Elizalde zein Añibarroren atzizki kopurua F. Elizalderenarekin konparatzean aurkitzen dugu. Honek hutsune argia adierazten du erorrien emankortasunaren inguruan, *HH*-a ezagutu ez zuen aldetik; bai eta argi uzten du, *eta/edo* egituren emankortasuna erorriak txertatzerako orduan, Añibarrorengan bereziki baina apalago Mikelestorena zein J. M. Elizalderengan; horren

aurrean, F. Elizalde ez du halako baliabiderik erakusten eta isla markagarria du testu osoko eratorrien kopuruan.

Ildo horretatik, aipatzekoa da zenbatetan agertzen diren Añibarrorean hitz eratorriak *eta/edo* egituren barnean —%40 inguru— (§ 3.1), bai eta zenbatetan ageri den beste hitz eratorri batekin paraturik egituraren barnean ere —*eta/edo* egitura barnekoen erdia edo—, literatur hizkuntzaren zabalpen lexikoari dagokionez esanguratsu; izan ere, atzizkidun hitzak elkarrekin paratzeko joerak erakusten du literatur hizkuntzaren garapenerako funtsezkoak jotzen zituztela: lexiko garbia txertatzeko.

Mikelestorena eta J. M. de Elizalderengan, ahulagoa da joera hori; haiek bestelako mekanismoak erabiltzen zituztelarik haien hitzak testuan paratzeko (§ 3.3), hitz eratorrien maiztasuna ere askoz baxuagoa izaki. Gauzak horrela, 1735tik 1800era %40etik gorako igoera erakusten dute testuek, eratorrien agerraldiei dagokionez.

Kontuan izanik hiru testuek tamaina antzekoa dutela, Larramendiren *HH*-aren eragina nabaria da F. Elizaldez gaindiko beste hiru lanetan eta —gainerakoekin konparatuz — baita Añibarroren ahalegin berezia lexikoa berritzerako ere.

6. Nafar testuen arteko konparaketa.

Atal honetan, lanean zehar lau dotrinen arteko ohar eta zertzeladen konparaketak eman dituen punturik behinenak laburbilduko ditut.

Azterturiko beste hiru dotrinei dagokienez, elkarrengandik hurbilago diren Mikelestorenarenak, J. M. de Elizalderenak eta Añibarrorenak gertu daude baliaturiko maileguen zein eratorrien nolakotasunean eta agerraldi kopuruetan oro har. Horrela, nahiz eta Añibarroren obraren gisakorik ez duten paratzen ez Mikelestorenak ez J. M. de Elizaldek, lexikoaren inguruko kezkek bere testuan lantzen dituzte (§ 4.3) eta grafia berrikuntza zerbait ekartzen dute ere, txistukarrietan kasurako (§ 2.2.10).

Mikelestorenarenean zehazki, nahiz antzekotasunak gailentzen diren grafia sisteman zein lexiko garbitasunean, badira ezberdintasunak J. M. De Elizalderen testuarekiko eratorrien kopuruari dagokionez, Añibarrorenaz gaindi. Hau, Mikelestorenaren testuaren ezaugarriei dagokie (§ 1.1.3) baina ez du LEMko beste testuek erakusten dituzten ezaugarrietatik at paratzen Mikelestorenaren testua.

F. Elizalderi dagokionez, nabaria da honen lexikoan garbitasunerako kezka askoz apalagoa, nahiz eta modernotasun zantzuak ageri diren bere testuan, bereziki hautu fonetiko zein morfologikoen inguruan (§ 1.1.2), eratorrien aberastasunean eta agerraldi kopuruan beste hiru testuetarik urrun dagoela ikusi ahal izan dugu azterketaren ostean (§ 5.3). Grafiaren atalean ere -lexiko tratamendua esanguratsuago delarik-, txistukarien grafemei dagokienez (§ 2.2.10) F. Elizaldek Euskara Zaharreko eta LEMaren arteko trantsizioan dela¹³ aditzera ematen du.

Hortaz, lau testuen arteko mugarik behinena F. Elizalderengan paratu behar dugu; beste hirurek (Añibarro, Mikelestorena eta J. M. Elizalde) dagozkien garaiko ezaugarriak argiki azaltzen dituzte, bakoitza bere berezitasunekin bada ere eta bereziki Añibarro eta beste bien arteko aldea nabarmena izanagatik. Gogoratu behar, Añibarrok ekoitziriko obra erraldoiaren parean (korpus erlijioso handia, Axularren itzulpena, bai eta gramatika zein hiztegia) beste autoreen entseateak apalagoak izaki, horrek guztiak baliaturiko idatzizko hizkuntzan isla duela.

Azterturiko atal oro aintzat hartuz, LEM-ko ezaugarriak garbiki azaltzen dituzten testuekiko F. Elizalderen ezberdintasunik nabariena lexikoaren erabileran datza;

¹³ Cf. Zuloaga (2015); garai berean bizkaieran Urkizuren idazlanetan (1737, 1740) paraleloa eskaintzen du (§ 1.1.2).

lexikoarekiko kezkarri dagokionez —eratorrien aberastasun urriagoan— nahiz lexiko kezkan aritzeko LEM-ko mekanismo ohikoen falta *-eta/edo* egituren urritasun zein tipologiari dagokionez (§ 5.3).

Horrela, argi geratzen da Larramendik eta bere *HH*-ak izan zuen eragina azterturiko nafarrerako euskara idatziaren lagin honetan nabarmena dela (F. Elizalderen testuaz gaindi, zeinetan Larramendiren eragin goiztiarra ere azpimarra daitekeen fonetikan zein morfologian (§ 1.1.2). Mikelestorena, Añibarro zein J. M. Elizalderen testuek hainbat hizkuntza hautu (lexikoaren trataerari dagokienez bereziki) konpartitzen baitute, Larramendirengandik ikasiak. Ondorioz, LEMko nafarrera idatziaz mintzo gaitzke, lan honetan zehar jorraturiko ezaugarrien hedadura konpartitzen duena.

7. Ondorio orokorrak

Lan honi akabua emateko, uzta jasotzea tokatzen da eta lan honek zer eskain dezakeen aditzera ematea. Azterturiko atal guztien azterketa aberasgarri suertatu da nafarrera idatziaren inguruan argigarriak lortu ditugulako; bai eta Añibarroren obra osoarekiko barne-kronologia eta bere hizkuntza, ekimen gauzatuaren aurrekarien inguruko argigarriak ere ematen.¹⁴

Ondorengo ondorioak nabarmenduko ditugu orain: grafia berrikuntzetan oinarrituriko Añibarroren lanaren barne-kronologiaz oharrak (§2); idatzizko hizkuntzaren garapenean *eta/edo* egiturek izandako eraginaren argigarriak (§ 3): testu honetan eta aztertu gainerakoetan izan duten proiektzioa mailegu (§ 4) zein eratorriei (§ 5) dagokienez ere; F. Elizalde, Mikelestorena eta J. M. de Elizalderen dotrinekin konparaketak eskaini dituen zertzeladak Larramendi osteko eta XIX. mende hasiera arteko literatur-tradizio eklesiastiko nafar baten inguruan (§ 6); azkenik, inprimatua eta eskuizkribuaren arteko konparaketak berretsi dituen ondorioak aletuko dira (§1. Eranskina).

Grafiaren atalean (§ 2), *NDot*-en ageriko hautuek oro har Añibarroren *ELI*-eko idaztaldiko ezaugarriekin egin du bat, eta ez aurrekoekin (cf. Urgell 2001), baizik eta honen parean *edo* are garatuago agertzen delarik. Honek dakarke bere hasikinetan baino aurrerago idatzi zuela lan hau; hainbat hautu grafiko azaltzen ditu, gerora sistema propioa osatu arte landuko direnak, Añibarroren egitasmo literario osatuaren parte kontsideratzeko dotrina hau eta ez nolabaiteko bere jardunaren periferiako lana, bere obrarik ezagunagoak eta ikertuagoak direnetatik urrun; ondorengo ataletan kausituak ere ideia hau berresten du.

Eta/edo egiturak (§ 3), literatur hizkuntzaren eraikuntzaren parte direlarik, hauen bidez forma eratorrien zabaltzea oraindik hastear ageri da nafarrera idatziaren aztertu laginari dagokionez. Aztertu dugunari erreparatuz, Añibarroren ondorengo lanetan egitura hauek haien ibilbidea jarraituko eta garatuko dute. Aldi berean, maileguez pisu handia dute oraindik testuan eta grafiarekin aztertu gisara, gerora garatuko duen obraren ezaugarrien habeak agertzen dira hemen jada, *Escu-liburuaren* lehen edizioko egoera

¹⁴ Urgellen (2001) Añibarroren lanen kronologia hartu dugu oinarritzat hainbat ohar egiteko honen inguruan.

berean; goragoko Añibarroren lanek erakusten dute hemen topatu dugun hizkuntzaren inguruko hautu hasiberri zenbaiten garapena (cf. Urgell 2001).

Maileguez (§ 4), literatur hizkuntzaren bilakabidean aurrera egin ahala, baztertuak direla erakusten dute oro har hitz garbiagoen (gehienbat eratorrien) mesedetan. Maileguok testuan gailentzen badira ere, forma garbiagoak baliatzeko asmoa nabarmena da eta hauen aniztasuna eta ugaritasuna testuaren barnean egitasmo horren isla nabaria da.

Bada beste afera bat: azterturiko hitzen gehiengoa erlijio esparrukoa izanik, maileguon gainbehera denboran zeharrekoa, genero erlijiosoek pairatutakoarekin ere lot zitekeen. Ideia horri jarraikiz, *eta/edo* egiturak erabili zituzten idazle gehienak erlijio-gizonak izanik eta haiek gehien jorraturiko testuak ere erlijiozkoak orobat, literatur hizkuntzaren garapena testuotan aztertu behar da halaberrez. Horrela, Añibarro eta beste askoren hizkuntza asmoa testu erlijiosoetan garatzen da gehienbat, asmo erlijiosoarekin batera.

Urgellek (2018: 633) ondorengo ideiak plazaratzen ditu LEMko idazleek jorraturiko literatur genero eta aldaeren inguruan:

Idazle gehienek erlijio liburuak idazten dituzte jende apalarentzat (§ 5.3.5), eta xede horrekin hizkuntza apal bat erabiltzea hautatzen dute. Erregistro erdi-jaso edo oinarrizko honetan erdarakadak gaitzetsita daude —nahiz idazle batzuk besteak baino nasaiagoak izan—, baina mailegu tradiziozkoak zein beharrezkoak ez; hitz berriak eta beste euskalkietako hitzak tentuz erabiltzea ere zilegi da. Hein bertsuan dabilta honetan Euskal Herri osoko idazleak.

Leku gutxi zeukaketen hemen Larramendiren proposamen gehienek, beste gai batzuez, maizenik jasoagoez —eta laikoagoez— jarduterakoan erabiltzekoak izaki, astronomia, gramatika, musika, nekazaritza edo osasuna bezalakoez, alegia. Oso adierazgarria da *-tzaile* atzizkiarekin ondo eratutako *HH*-ko hitzen adibide bakan batzuk miatzea, haien premia noiz sortu zen ohartzeko.

Zenbait hitzen gainbehera bada ere, baliaturiko literatur hizkuntzak jarraipena izan zuen eta horren isla da dotrina honetan ageriko hainbat eratorrik XX-an jarraitu izana normaltzera heldu arte; eta XVIII-an ordeztan hasiriko maileguak XIX akaburako idatzizko tradizioetik oro har periferiara baztertuak izana (§ 3.3). *Eta/edo* egiturek *NDot*-en duten pisuak erakusten du testuan zeharreko maileguen gailentzea nagusi bada ere, esparru lexikoa berritzeko ahalegin izugarria; denboran zehar hedatu dena, ondoko tradizioek bestelako generoak eta testuak ere jorratu dituztelarik.

Azterturiko maileguen eta eratorrien gehiena erlijio-hitzak ditugu beraz, maiz *eta/edo* egituretan kokatuak eta diakronikoki begiraturaz, ordezkatuak izateko prozesuan

murgildurik lehenak eta orokortzeko bidean besteak. Añibarroren nafarrerazko dotrinakoek, Añibarroren beste lanetan zein garaikide edo ondoko Larramendiren eraginpeko idazleengan ikusirikoekin bat egiten dute.

Beraz, ulertu behar dugu Añibarro eta besteren testuetan ageri maileguak, haiek eraginkorrak izan zitezten beharrezkoak zirela, bere gordintasunean bada ere. Hori ikusirik, Larramendiren aurreko hizkuntza garbiaren aldeko ekimenak, hark hauspotua izan zen, bestelako dinamikak sartu nahi zituen hizkuntza literarioan, ahozko hizkeraren baliabideetatik edanez. Testuko mailegu gehienak, ahozko aberastasun horren parte ziren jada (mailegu oro ez baitzuten gaitzesten) eta hala jarraituko zuten; ez ordea, egun gure testuetan ezagutzen ez ditugun mailegu arrotzak, *eta/edo* egituretan haien baztertzea testu honetan ere antzeman baitezakegu.

Erorriak (§ 5), Larramendiren *HH*-ean azalduko eratorpen bideetarik sorturik dira gehienak; hitzok Larramendiren hiztegian zuzenean bilduak ez badira, baliaturiko eratorpen bideek hiztegian dute isla garbia. Añibarroren hiztegian berean (*VB*-en) ere maizenik bilduak, bategitea erakusten dute azterturiko formek Añibarroren egitasmoaren parte izanik *VB*-n zein, oro har, *NDot*-en.

Gainerako dotrinekiko erkaketari dagokionez (§ 6), emankorra suertatu da oso nafar-literaturaren ezaugarri batzuk zedarritzeko. Ikusi dugu Mikelestorena, Añibarro eta J. M. Elizalderen lanak bat datozela hautu grafiko oinarrizkoetan zein lexikoaren tratamenduari dagokion alorrean, nahiz Añibarro *eta/edo* egituren bidezko eratorrien txertatzean, kopuru eta aberastasun zabalagoa azaldu. Hiru obra horiei dagokienez, beraz, idatzizko hizkuntzaren hainbat ezaugarri partekatzen dituzte, Larramendiri ikasitakoak.

F. Elizalderen dotrinari dagokionez, hau Euskara Zaharra eta LEM arteko trantsizioan ageri den obra da; Larramendiren eragin goiztiarra azaltzen duena zenbait hautu fonetiko zein morfologikori dagokienez (cf. Zuloaga 2015), baina era berean zenbait hautu grafiko zein lexikoaren tratamenduari dagokionez (§ 2.2.10), azterturiko beste obrekiko ezberdintasun nabarmenak azaltzen dituena.

Eskuizkribuarekiko konparaketari dagokionez lanaren tamainagatik, bai eta sistematikoki eginiko erkaketa izan ez delako ere, eranskinera eraman dugu atal hau. Han, lan inprimatuarekin hainbat ezberdintasun aztertu dugu, bai eta honek erakusten

duen lexikoaren tratamenduaren inguruko gakoei heldu ere; ikusi dugu, beraz, Añibarrok dabilzan eratorri anitz gero testuan lekua egindakoak *eta/edo* egiturak maileguen alboan paratuz hain zuzen.

Lexikoa berritzeko ahaleginean, eratorrien zein hauen sarbide diren *eta/edo* egituren garrantzia azpimarratu dugu saio honetan. Horretaz gainera, Añibarroren lanaren planifikazioa agerian geratzen da, *eta/edo* egituren txertaketaren lanketa esplizitua baita eskuizkribuan, bai eta oro har lexikoa ordeztearena; testuko nafarreraren inguruko hizkuntz hautuak ere planifikaturik ageri dira, eskuizkribu akabuko oharrek dioskutenez.

Añibarroren obra hau aipagarria suertatzen da, besteak beste, euskalki berezitasuna dela eta (Añibarro bizkaitar tradizioko idazlea izaki): euskal hizkuntza konstruktu literario gisa ere ulertzea eskatzen duelako bere ekoizpenak, hizkuntzaren ezagutza zabalaz gaindi, norbere euskalkitik kanpoko —ofizioa dela medio ikasiriko— hizkerara itzulpena egiteko. Hori gauzatzeko, euskara osorako bezala ulertzen du Añibarrok Larramendiren egitasmoa eta ezaguna zaion bere hizkeratik at den bainan euskara osoari dagokion idatzizko hizkuntza nafarreraz moldatzea lortzen du; Larramendik idatzizko hizkuntzari ekarririko berritasunak nafarrerazko testura zabaldurik agertzen dira, Añibarroren egitasmo propioarekiko elkarbizitza batean.

Garapen hau nafarrerazko testuetan nabarmenki Añibarroekin eta garaikide den J. M. Elizalderekin aditzera ematen bada ere, bestelako idatzizko tradizioetan belaunaldi 1-2 lehenago gertatu zela azpimarratu beharra dago (cf. Kardaberaz, Mendiburu); idatzizko nafarreraren kronologia perspektiban kokatzearren.

Amaitzeko, geratzen den lanik behinena¹⁵ hemen hasitako konparaketa emankorra are gehiago zabaltzea dugu eta baita Añibarroren nafarrerazko dotrinaren edizioa aurkeztea ere, horretarako aurrelanak azaldu baitira hemen aztertu atal orotan. Horri dagokionez, ezinbestekoak suertatu dira lan honetan aurreko eta garaiko beste obrekin konparaketa zein Añibarro beraren gaineko eboluzioa jorratzea ere.

15 Bi ale inprimatuen inguruko oharra dakart hemen. Lan honetan baliatu dudana, Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioko liburutegiak digitalizaturik dakarrena da. Bestea, Bizkaiko Foru Liburutegiak digitalizaturikoa; honetan, lehen orrialdean Iribarrenen firma autografoa dator eta lehen erdia ongi ageri bada ere, bigarrena (48tik 82ra) ez dago gillotinatuz eta inprimaketa akatsak azaltzen ditu.

8. Bibliografia

- Altuna, P. (1982), ikus Mendiburu, S. (1982).
- Añibarro, P. A. (1802-3), *Cristau-dotriña, zeñetan eracusten baitire gure fede sanduco gauzaric bearrénac*, Iruñea: Joseph Radaren echean.
- (1963 [ca. 1804]), *Voces Bascongadas*, Villasante, L. (arg), Bilbo: Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína.
- (1969 [ca. 1823]), *Gramática Bascongada*, Villasante, L. (arg), *ASJU* 3, 3-169.
- (2001), *Gueroco guero*, Urgell, B. (arg.), Bilbo: Euskaltzaindia.
- Iriarte, I. (2022), *Joakin Lizarragaren lexikoaren azterketa*, Bilbo : Euskaltzaindia.
- Iruretagoiena, H. (2023), “Izenak sortzeko atzizkiak eta literatur hizkuntzaren historia: Ubillosten dotrina eta Lubieta eta Pomier Hiztegiak”, *ASJU*, martxoa, online first.
- Lakarra, J. A. (1985), “Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan”, *ASJU* 19:1, 9-50.
- (1986), “Burgosko 1747ko dotrina: I. testua eta oharrak”, *ASJU* 20:2, 1986, 533-594.
- (1987), “Burgosko 1747ko dotrina: II. facsimilea eta hiztegia”, *ASJU* 21:1, 1987, 277-317.
- (2022), “*Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*: filologia ala hil”, in *Tu voz en muchas voces : escritos en homenaje a Jon Juaristi*, Iván Igartua, Jesús Antonio Cid (arg.), Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 401-461.
- (2023), “Asuntzioko Sermoi egile-, toki- eta urtegabea. Larramendiren testu berri ezezaguna [Loiola 1740]”. *Euskera* 2023, inprimategian.
- Larramendi, M. (1745), *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín* (2 lib.), Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero.
- Mendiburu, S. (1982), *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Altuna, P. (arg), Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mitxelena, K. (1974), “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, berrarg., *PT*, 195-219.
- Rojo, L. (2023), “[*n/-l- + herskari*] taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkariaren lekukotasuna: irudia(k) fintzen”, *ASJU*, otsaila, online first argitalpena.
- Salaberri Zaratiegi, P. (1994) “Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscarasi*”, *FLV* 26, 65, 7-40.
- Salaberri Muñoa (2019a), “Mikelestorenaren *Cerura nai duenac* liburuaren lehen edizioa (1749)”, *Karmel* 2019-4, 29-71.
- (2019b), “Testu-erlazioak eta eklektizismoa zeruko bidean (Oharrak Mikelestorenaren *Zerura nahi duenak* liburuaz)”, *Egan* 2019 3/4, 9-58.
- Sarasola, I. (1986), “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU* 20:1, 203-215.
- (1997), “Euskal hitz altxorraz”, *ASJU* 31:2, 617-642.
- Ondarra, F. (1992), “Gartzainen aurkitutako Kristau Ikasbidea”, *ASJU* 36:3, 977-1002.
- (1993), “Jose Matias de J. M. de Elizalde (1776-1856), Urdazubiko monastegiko azken abatearen predikuak”, *ASJU* 27:2, 575-611.
- Urgell, B. (1987a), “*Esku-liburuaren* grafi aldaketak (1802-1821)”, *ASJU* 21:2, 357- 387.
- (1987b), “*Esku-liburuaren* hiztegi aldaketak: 1. mailebuak”, *ASJU* 21:3, 683- 708.
- (2014 [2000]), *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, Gasteiz: TESI KER.
- (2003), Eratorpena Larramendiren hiztegian (I): eratorbideen analisisa”, *ASJU* 37:1, 203-260.
- (2018), “Lehen euskara modernoa” in *Euskararen Historia*, Gorrotxategi, J., Igartua, I., Lakarra, J. A. (arg.), Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia.
- Villasante, L. (1963), ikus Añibarro, P. A. (1963 [ca. 1804]).
- (1969), ikus Añibarro, P. A. (1969 [ca. 1823]).
- Vinson, J. (1984 [1891-1897]), *Bibliographie de la Langue Basque*, Donostia: Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo”.
- Zuloaga, E. (2015), “Diego Lorenzo Urkizuren 1740ko Zortzikoak”. *ASJU* 49:1/2, 181-203.

Eranskina:**1. Eskuizkribuaren eta inprimatuaren arteko konparaketa**

Añibarroren nafar dotrinaren ale eskuizkribatu bat Euskadiko Artxibo Historikoko *Dokuklik*¹⁶ portalean digitalizaturik kausitu dut; Labayru institutuaren ekimenez eta bere katalogotik *Dokuklik*-era erauzia. Dokumentua Arantzazuko Franziskotarren Artxibategi Historikoan omen zegoen, *Obras Misceláneas* delakoaren barneko alea zelarik. Nihaurk ez dut eskuartean ukan, beraz, baliteke hemen azalduarekiko aldaketak egotea ale fisikoan. Horrela, inprimatuarekiko erkaketa sakona ezin utzizkoa da hemen eginiko konparaketak eta ondorioak zabaldu ahal izateko eta noizbait burutu beharreko *NDot*-en ediziorako.

Ale beraren berri ematen digute Urgellek (Villasante aipatuz, 2001) eta Villasantek (1963, 1969). Ondorengo oinoharra dakar Urgellek (2001: xxvii):

Kontuan hartu beharko da, hurren aipatzen ditudanez gainera, *Obras Misceláneas* liburukian badela *ND*-aren eskuizkribu bat (Villasante 1963: 15); gainerantzeko lanez dakigunaren arabera, baliteke honek ere argitaratuarekiko aldaerak izatea.

Beraz, aldaketa horietaz arituko gara orain, lanean zehar aldaketa batzuk aipatu baditut ere (§ 1.1.4, 2.2.10) adierazgarriak ziren tokian, hemen garatuko ditugu eta laburpena egingen. Aitortu behar, ez dudala erkaketa modu sistematikoan burutu eta oraindik mamia ateratzen ahal zaiola. Halere, gako batzuk eman nahi nituzke hemen.

Topaturiko eskuizkribua tarteko idaztaldia dela da ateratako ondoriorik behinena. Alderdi ezberdinek frogatzen dute hau: lehenik, Urgellek *Gueroco guero* Añibarroren itzulpenaren edizio kritikoan azaltzen duen azal eskuizkribatuarekin konparatuz (2001: xlix), non argitaratzeko prest gisan jotzen duen Urgellek (2001: xliii). Ikus daiteke Añibarroren zirriborro hau landugabeagoa dela;¹⁷ horretatik at, testuan zehar oharrak eta zuzenketak oso ugariak dira eta gerora inprimatuan agertzen. Hauetako askotan, hitz mailegatuak hitz garbiagoez ordeztzen ditu: kasurako *partea* > *zattia* ordeztzen ditu dotrinan zehar hainbat aldiz. Horrekin batera, hainbat *eta/edo* egituren txertaketa ikusten dira gehiketa gisan oinarriko testuaren gainean; ikusitako adibide orotan, forma garbia txertaturik ageri da (eratorria gehienetan) *edo* baten bidez, oinarrian den maileguari: kasurako *trinitate* edo irurtasun *sandua*; *gula=sabel-darraio-tasuna*.

Badira beste bi zantzu adierazgarri: batetik, eskuizkribuan azenturik ez agertzea, argitaratuan bezala; azentu horiek aurreragoko idaztaldietan paratu beharko zituen Añibarrok, inprentara bidalitakoan gutxienez. Bestetik, jada aurreratu gisan (§ 1.1.4), inprimatuko 45.

¹⁶ <https://dokuklik.euskadi.eus/>

¹⁷ Eranskinean ematen dugu eskuizkribuaren portadaren kopia.

orriko “G. Cer da fedea?”-tik “[...] nai genduquéna”-ra arteko zatia eskuizkribuan ez da ageri¹⁸; gerora gehituko zuen Añibarrok.

Horrekin batera, aipagarria da testuan zehar eginiko aldaketa orokorra gaztelaniazko *tu, mentu* formei dagokienez; hauetan gehienetan forma ahostuna ahoskabeaz ordezturik ageri da erregulariki; nahiz eta inprimatuan batzuk ageri diren (§ 5.3), ordezkapen orokorra ikusten da ondokoetan: *mendu* > *mentu* ordezkapena argia da *manamendu* forman, guztiak *mandamentu*-rekin ordezten baititu); *dade* > *tate* gisakoekin ere bai (kasurako *trinidad* > *trinitate*).

Beste bide batetik, eskuizkribuaren amaierako orrian, autoreak zenbait ohar paratzen ditu baliaturiko nafarrerazko aldaeren inguruan,¹⁹ besteak beste. Hauek gure testuan betetzen diren ikertuko dugu orain. Esan behar, tokia mugatua dugunez, ondoko oharrak eta gramatikan (*GB*, 1969) dakartzan nafarrerazko informazioa bat datozen, aurreragoko lanetarako utzi dugula.

Horien artean lehena ekartzearen: “sartzea, sartzee. Es mui comun poner *e* por *a* en Navarra”. Horrela, eskuizkribuan ageri diren *dira* > *dire* azken bokala aldatzearen froga uzten du Añibarrok (*dire* orokorra da salbuespenik gabe), bai eta artikulua den kasuetan ere *a* > *e* aldaketa ugaria da eskuizkribuan zeharreko formetan, nahiz eta honetan lehian ageri *a*-dun formekin (kasurako *laudagarrie* (79), *eztitasune* (5), *laguntasune* (45); baina *behartasuna* (43), *Jangoicotasuna* (54), *Naguitasuna* (57)). Gehiago, “*qui* por *quin*. *Onequi*, *arequi*”, eta oro har, “*la n* al final se omite generalmente. Murió: *iltze*. *Orai*.”; honen arrasto ugariak daude testuan zehar: *orai* (1, 4, 14, 43, 66, 75); *Jangoicoarequi* (12), *norequi* (29), *andiarequi* (67). Halere, iraganeko aditzaren amaierako *n*-a kentzea ez da testu honetan ageri. Azken ohar bat ekartzearen: “*bercea*: el otro: *bercela*: *berceric*: sin *tz*” emateko hobesten du, nahiz salbuespenak azaltzen dituen: *bertze* (33, 45, 67).

Hemen ekarritako erkapen motza emankorra suertatu den heinean, sakonera gehiagokoan sartzeak hemen tokirik ez duen luzapena eskatuko luke. Halere, tarteko idaztaldia dela ondorioztatzeaz gain, Añibarroren lexikoaren inguruko kezka berresten du eskuizkribuak. Bereziki, *eta/edo* egiturek lexikoaren berritzearekin eta nabarmenki, eratorriak LEMko korpusean sartzearrekin duten harreman hertsia.

Hortaz, eskuizkribuaren azterketak Añibarroren lexikoa berriztatzeke ekimenaz lekukotza zuzena eskaintzen du: testuan zehar aurretiaz ikusi dugun mailegaturiko formen aurrean forma garbiagoak berresten dituela, testua errebisatu ahala ere gertatzen zela ikusi ahal izan dugu, bai eta ezinbestekotzat jotzen dituen maileguen aurrean maiz *eta/edo* egituren bidez hitz berria (eratorria gehienetan) paratzeko ahalegina egiten duela ere.

18 Falta den zatia osorik eranskinean eman dugu.

19 Hauek osorik eranskinean eman ditugu.

1. 2. Eskuizkribuan falta den ataleko transkripzioa

45. orrialdeko zatia:

G. Cer da Fedea?

E. Eztacuscuna sinistatcea,
Jangoicoac ala aguertu
duelaco.


G. Cer da Esperanza?

E. Esperatcea Gloria Jan-
goicoaren laguntasune, ta,
gueren ongui eguñiac bi-
tarte diréla.

G. Cer da Caritatea ?

E. Onetsitcea Jangoicoa
gauza guciez gañean, ta
guere lagun, edo progimoa
gueren burúac bezala,
eguiten diegula,
ebec guri eguitea, nai
guenduquéna.

1.3. Eskuizkribuaren akabuko oharrak



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAIADEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA


1. Irudia:

Eskuizkribuko akabuko oharren orrialdearen argazkia.

1.4. Portadak eta orrialdeak




2. Irudia: *NDot*-en portada (ale inprimatua)



3. Irudia:

NDot-en portada (ale eskuizkribuatua)



NDot-en ale eskuizkribatuaren 8. orrialdea.



5. Irudia:

NDot-en ale inprimatuko 15. eta 16. orrialdeak.

2. Azentuaren ataleko analisisa

Azentuaren azterketarako, Añ zein Lk azentuaren inguruan esan zituztenak *NDot*-an betetzen diren ala ez analizatuko dut. Larramendik *h*-az esan zuenari jarraiki (HH xxxiii, honen

zalanitzako hitzak bereizteko ahalmena medio, Añibarrok azentuan ikusi zuen potentzialitate gisakoa (Urgell 1987b: 419). “Hai nombres que no se pueden distinguir si son singular o plural sino es por el acento: y por eso es mui necesario este para la construcción bascongada (*GB* 168)”.

Honako testuinguru hauek bereizten ditu Añibarrok, azentua singularra eta plurala bereizteko beharrezko dituenetan; lehena eta behinena hauxe:

Quando se quiere hacer singular deve tener el acento en el artículo último *guizonác*: y para denotar que es plural se pondrá el acento en la vocal o silaba anterior al artículo: [...]. Lo mismo que en el nominativo se acentua en los demas casos: [...]. En plural el acento es suio [...] (1969: 168).

Honi dagokionez, singularra markatzeko ez du azenturik ia baliatzen *NDot*-en zehar, salbuespen hauekin: *Sanduác* (27 baina *sanduaac* 20, 32, 40, 52, 72, 74), *Apostoluác* (29, hemen kontestuairengatik ergatibo plurala behar luke, baina ergatibo singularreko forma adierazten du, baina *apostoluac* 16), *Aingueruác* (32 baina *aingueruac* 76, 77), *onetán* (73 baina *onetan* 2, 5, 23, 26, 27, 36, 37, 38, 72), *Mairá* (74), *Ceñéc* (2). Horrela, *EL2*-ren moldera dago singularreko azentua markatzea (Urgell 1987b: 419).

Plurala markatzeko, aldiz, erabilera zabalagoa dugu, kasu hauekin guziekin:

gáuzac (14, 16, 21), *Masisúac* (sic) [*Maissúac*] (27), *Oracioác* (28, hemen azentuak ez du aipaturiko araua jarraitzen, baina *oracioac* 15), *indárrac* (56), *bearrénac* (1), *Ceruétan* (3 baina *ceruetan* 32), *Infernuétara* (5 baina *infernuetara* 9), *illén* (5), *Ceruétara* (5, baina *ceruetara* 10, 24), *illéc* (5), *Sanduén* (5 baina *sanduen* 9, 26, 33), *Becatuén* (5, baina *becatuen* 26, 31, 70, 73), *ondasunétan* (26), *mesedéac* (29, 32, 33), *gucietan* (29 baina *gucietan* 13, 22, 50, 62, 67, 72), *Arimétan* (30), *zordunéi* (31 baina *zordunei* 3), *atseguñén* (40), *ondasunén* (40 baina *ondasunen* 58), *gabéac* (40), *tristéac* (41), *atsecabéac* (42), *vertutéac* (44), *enzunénac* (45), *gucién* (45 baina *gucien* 4, 6, 7, 8, 17 eta abar luzea), *Arimén* (53), *Apézac* (56), *uméac* (56), *Personétan* (71), *Arimétan* (77), *Aingueruén* (79), *Patriarquén* (79), *Martirién* (80), *Confesarién* (80), *Virgiñén* (80), *Articulóac* (15), *Persónac* (18), *ónac* (24, 27, 32, 55, 59, 75, 76 baina *onac* 75, 77), *gaistöac* (27 baina *gaistoac* 55, 60), *Zorionecóac* (30, 65, eta abar baina *zorionecoac* 66, 68), *zórrac* (31 baina *zorrac* 3), *persónac* (34), *guezurrezcóac* (36), *Gurasóac* (37 baina *gurasoac* 7, 37), *Nagusiagóac* (38), *Leguecóac* (41), *misericordiazcóac* (42), *naiezcóac* (43), *borondatezcóac* (44), *Eliz-Guizónac* (56), *ganonzcóac* (61), *ónai* (72 baina *onai* 10), *Mandamentúac* (6, baina *Mandamentuak* (6, 15, 40)), *becatúac* (31, 46, 48, 50 baina *becatuac* 19, 57, 70), *Mandamentúec* (40, *a>e* nafarrerazkoa aplikatu, baina *mandamentuec* 35, 40), *catibúac* (42), *Sacramentúac* (43, 44, 74 baina *sacramentuac* 15, 31 43), *burúac* (45), *iturburúac* (56), *Zoriontasúnac* (66 baina *zoriontasunac* 65).

Bide batez, genitibo pluralean azentua azkeneko bokalean jartzen du beti, ez aurreko bokalean, aurreko zenbait adibidetan azaldu gisan. Bestetik, gaztelaniazko bi mailegu ere ematen ditu jatorrizko tildeaz: *Espíritu* (8), *cólera* (58), euskarazko azentuaketa aztertzean kontuan hartzeko ez direnak.

Beraz, pluralean presenteago dago azentua markatzea oraindik, nahiz eta salbuespenak, erakutsitako formetan beretan ugariagok diren maiz. Bildutakoez landakoetan, pluralekoen gehiengoan ere alegia, ez da azenturik, kasurako: *desterratuac* (5), *esqueñiac* (6), *Igandeac* (6), *Jaiac* (7), *Gurasoac* (7), *viciec* (5), *escuetan* (31), *tentacioetan* (31) eta abar luze bat. Hots, lehian egon arren, azentua ez markatzea gailentzen da pluralean ere.

Hurrengo testuingurua honakoa da (Añibarro 1969: 168):

Los nombres verbales y compuestos mantienen el acento en el mismo que en singular v. g. *beguiratzálleac*; *urreguilleac*, *zapatáriac*, *bildúrtiac*.

Los acabados en *tzalle*, tienen en la misma *tzá*: *salbatzállea*. Los acabados en *le*, en la penúltima, *enzúnle*, *esále*. Los en *ti*, en la antecedente, *goséti*, *bildúrti*, *sagásti*. Los en *guille*, *aga*, en la penúltima, *onguille*, *urreguille*; *arteága*, *obeágo*, *ederrágo*. Todos los sobredichos admiten también en la última: *salbatzalé*, *bildurtí*, *ederragó*.

Honi dagokionez, *tzalle* duten hitzek ez dute tilderik, salbuespenik gabe. Ez eta *guilledun* hitzek. *-ri* amaiera duten eta atzizkidun hitza kontsidera litezkeen: *Confesarién* (80), *Martirién*-etan (80), ez dute aipaturiko azentua mantentzearen legea betetzen, ez eta *Nagusiagóac*-en (38). Halere, lehen biak azkenekoan dutenez, Añibarrok aipaturiko salbuespenean sar daitezke, ez ordea azken adibidea. Izenordainei dagokienez (Añibarro 1969: 168):

Los pronombres personales mantienen el acento en la última en todos los casos: v. g. *ni*, *nirí*; *gu*, *guretzát*, *niré*, *zuré*, *iré*, *guré*, *berác*. Pero de estos pronombres *zu*, *ceu*, *a*, en los casos de plural tienen el acento en la primera: v. g. *zúec*, *zúentzat*, *zúecaz*, *áec*, *áenzat*. *Baga* y *gaiti* tienen en la primera: *zu bága*, *a gáiti*.

Hauei dagokienez, *berén* (37) da azentua erakusten duen izenordain bakarra, eta honetan betetzen da Añibarrok esandakoa, baina ez gehiagotan, forma berak dituen beste lau agerralditan azaldu gisan: *beren* (25, 48, 57, 67). *Bága*, *gáiti* gisako adibiderik ez da testuan. Aditzen testuinguruan, honakoa esaten du (Añibarro 1969: 168-169):

Tiene el acento en la última el infinitivo de presente, *artú*, *ecarrí*, *enzún*. Eceptua *bóta*, *eróan*, *erázo*, *artu erázo*. También tiene en la última el participio de preterito y ablativo, *janá*, *janíc*, *aguindúa*, *duríc*. Acento en la última el subjuntivo en el presente, *jan daidán*, *deзадán*, *daguiodazán*. Pero en el primer imperfecto tiene en la primera, *jango cénduque*, *nítuque*, *céusquedaz*. El participio de presente en la penúltima, *játen*, *edáten*, *ecárten*. Y lo mismo todo infinitivo determinado, declinable y gerundio, *játen*, *játeco*. Toda terminación de indicativo en la primera, *jaten dózu*, *dózuz*, *cénduan*, *deústazu*, *cinidan*. El imperative tiene el acento en la primera sílaba o vocal: *jan éguizu*, *etorri záitece*. Lo mismo en verbos neutros, *etorten gára*, *zára*, *guínean*, *játazan*. También se acentúan en la primera sílaba, *dáucat*, *dároat*, *nágo*, etc.

Onésitcea (6), *Mendécatceco* (58) formek betetzen dute infinitibo determinatuei dagokien araua, baina ikusirik beste adibiderik ez dela infinitiboei dagokienez, oro har ezta aditz jokatugabeei dagokienez ere, azentuaren erabilera guztiz marginala da atal honetan.

Adizki jokatuak dagokienez, indikatiboko laguntzaile azentudunak hauek dira: *diréla* (27, 45), *dizténac* (67), *ciúela* (9). Hauetarik batek ere ez du azentuaren araua betetzen. Subjuntibodun adizki bakarra dago betetzen duena: *gaitecéla* (81). Lehen inperfektoan, *guenduquéna* (45) da adibide azentudun bakarra eta ez du araua betetzen.

Adizki trinkoetan, *gaudé* (5), *dutéla* (26), *datocénac* (29), *daudénac* (34, 67), *ezduténac* (66), *duténac* (66), *duénac* (67), *dabiltzélaco* (67) dira adibide azentudun guztiak eta ez dute lehen silabako azentu araurik betetzen.

Adberbioei dagokienez (Añibarro 1969: 169): “Acento en los adverbios en la última: *emén, echeán, echetíc, lurreco, errira, sarrí, gaurcó, iru bidér, belaunicó, arrén, celán, baná, bidér, baldín, etá, eté. Arra, tarrá, darrá* en la penúltima, *erritárta, Villaroárta, Bilbotárta, Cerutárta*.”

Onetán (73), *Mairá* (74), *cerén* (65) dira hauen gisako azentu araua betetzen duten adibide soilak. Badira beste hauek: *Ceruétan* (3), *Ceruétara* (5), *ondasunétan* (26), *gucietan* (29), *Arimétan* (30, 77), *Personétan* (71); zeintzuk pluralean deklinaturik diren eta arestian aipaturiko pluralaren azentuazioaren araua jarraitzen duten, kontraadibide anitzekin bada ere (*ceruetan* 32, *ceruetara(t)* 10, 16, 24, *gucietan* 13, 22, 50, 62, 67(2), 72). Gauzak horrela, atal honetan ere azentuaren betetzea marginala da guztiz; adibide gehienak bat izan ezin (*cerén*) plural/singular arauari dagozkien, eta horretan ere, aurretik ateratako ondorioekin bat datoz, azentuaren erabilera eskasarekin, alegia.

Gauzak horrela, argi geratzen da Añibarrok bere gramatikan adierazi, lehenago Larramendigandik harturiko legeak (Urgell 1987b: 418), ez dituela oso-osorik betetzen.

Pluralaren bereizpena da indar gehien duen atala, salbuespen anitzekin bada ere, indarra du oraindik azentu erabilpen honek lanean, zeina ez baita baztergarria. Beste testuinguru guzietan, azentuaren erabilpena baztergarri da oro har. Azentuak, beraz, presentzia bera du obra osoan zehar eta presentzia hori ez da guztiz marginala oraindik. Interpreta liteke beraz, azentuari dagokionez erdibideko tartean dela *EL1* eta *EL2* edizioek markatzen duten Añibarroren eboluzioa aztertu bi puntu horien artean.

F. Elizalderengan, azentu arrastoak badira ere testuan, oso bazterrekoa da. Mikelestorenarengan, antzeko: bi azentu topatu ditut soilik testu osoan: *gauzaríc* (1749: 13) eta *badaquít* (1749: 90) formetan; lehenari, forma beraren agerpen ororen lehengoa; bestea, azkenekoa. J. M. de Elizalderengan soilik (1992: 981) “Ó biotz bera, Ó urricalmendutsua [...]”

adibideak solik, Ama Birjinari zuzentzerakoan. Guztiz baztergarria da beraz bi dotrinetan azentua, esangura handirik gabekoa.

3. *Eta/edo* azalpenak

Bereciera-ren lehen lekukotasuna *OEH*-n Kardaberazren dotrinan da, ca. 1762 urtekoa (*bereciera* in *OEH*). Añibarroren hiztegian *division* sarrerarik ez da, eta Larramendirenean, ematen du (1745: 197) *berezdea* forma soilik *bereci* erroarekin, eta ez *-era* atzizkiarekin. Halere, *dividir*-enean, Añk (1963: 64), “c.” (común)²⁰ atalean *zaitu* jartzen du, eta “n.” (*navarro*) aldamenekoan, *bereci*, beste hainbat sarreratan forma hori nafarrerazkotzat emanaz. Esan behar da, halaber, maiz *navarro* horren azpian egon litekeela Axular eta lapurteratik harturiko zerbait. Lk (1745: 197) *ucitu*, *bereci* ematen du *dividir*-en sarreran. Gauzak horrela, pentsatzekoa da lehenik Kardaberazek eta gero Añibarrok aplikatu diotela atzizki berria *bereci*-ri, L-ren eratorpenari jarraikiz, berak *ucitu* aditzarekin garatu eta *bereci*-ra luzatu bezala. Halere, *-era* gisako atzizkirik ez du baliatzen *division* sarreran L-k, beste askotan bai; beraz, hitzaren jatorria zalantzazkoa da, nahiz eta L-ren ostean lekukotzen den estrainekoz. Halaber, Agirre Asteasukoak erabiltzen du lehen aldiz forma hau *eta/edo* egitura batetik at, 1808 inguruan (*OEH*, s.u. *bereciera*). Añibarroren kasuan, bat dator bere hiztegian nafartzat jotzen duen formaren gainean eratorpena egin izana.

Hiztegi horretan (*Voces Bascongadas*, Villasante 1963) *division sarrera* ez da ageri. Halere, *dividir*-enean, Añk ez du ordaintzat onartzen bere hiztegian, ez eta Lk berean ere. *Dibisio* eta antzeko formak (*OEH*, s.u. *dibisio*) Leizarragaz geroz lekukotzen dira eta bereziki iparraldeko tradizioan, Etxeberri Ziburukoa eta Tartasen gisako testuetan, bai eta geroko hegoaldeko hainbat katiximatan ere, Bonapartek editaturikoetan eta Baztango 1826ko dotrina, azken agerraldia XIX-ko hirugarren laurdenean duelarik. Kardaberazek paratzen du *eta/edo* egituraz Añibarrarekin batera bere dotrinan.

Bigarrenean, Añk *original* (1963: 116) sarreraren pean agertzen du *jatorrizcoa*. *Original* bera ez du onartzen ordaintzat. *Bekatu jatorrizko* zentzuarekin, *jatorrizko* forma Lren ostean lekukotzen da lehenengoz (*OEH*, s.u. *bekatu*) Mendiburu eta Larramendiren Burgosko dotrinan²¹ (1747an), *eta/edo* egiturarik gabe bere horretan. Halere, *bekatu jatorrizko* bere kabuz, *eta/edo* egituretatik at normalki topatzeko, Beobideren *Asis-co Loria* lanari itxaron behar, hortik aurrera dituen agerraldiak bere horretan izango baititu, beraz 1885tik aurrera, XIX.-aren amaierara arte ez da normaltzen forma hau.

Original (1963: 116) sarreraren, *original* bera ez du onartzen ordaintzat. Hitz hau eta bere aldaerak (*OEH*, s.u.) orokorrak dira lehen testuetarik, Leizarraga, Beriain eta Otxoa Arinen lanetan kasurako. Maisterren lanean ageri da lehenengoz *eta/edo* egitura paraturik, Kardaberaz, Ubillos, Agirre Asteasukoaren lanetan ere. XIXtik aurrera bere erabilera motelduz doa, akabura arte dotrina gutxitan ageriz eta XXrako ez da ia alerik.

Garbitasun Añren hiztegian (1963: 48) ageri da, *castidadea* forma ere onartuz. *Garbitasun* forma (*OEH* s.u.) lekukoturik da lehen aldiz Materraren dotrinan, bere horretan eta Harrieten gramatika akabuko hiztegian orobat. Halere, Axularrek jada baliatzen du *kastitatea*

²⁰ Hemendik aurrera, besterik esan ezean, aipaturiko *VB*-ko ordainak c. (común) sailekoak dira.

²¹ Burgosko dotrinan lehen zirriborroa Mendibururena bada ere, hainbat ohar eta aldaketa sakon ditu Larramendik egin eta azken testu inprimatuan kokatutakoak; ikus P. Altuna (arg.), 1982 (*Mendibururen Idazlan argitaragabeak*, Euskaltzaindia) eta Lakarra Burgosko dotrinaz ASJU 1986-1987.

eta garbitasuna, eta Burgosko dotrinan (1747), Añren beste lanetan ere *eta/edo* egituran bildua agertzen da, baita Mogelengan (~1803) ere. Halere, hauen ostean bere horretan agertzen jarraitzen du. Beraz, Lk zabalduko forma dugu, XIX. erdialderantz normaldua.

Hiztegian, *castidad* sarreran (1963: 48) *castidadea* ordaina onartzen da. *Orotarikoak* ondokoa dio (s.u. *kastitate*): “Es muy escaso al Norte desde el s. XVIII, y desde la segunda mitad del s. XIX al Sur; apenas se documenta en el s. XX.” *eta/edo* egituran Mendibururengan, Añgan (*LoraS-n*) eta Agirre Asteasukoan ageri da, autore hauen ostean, aipatu gisara, erabilera murrizta da hegoaldeko zenbait dotrinatara mugatua, Bonapartek editaturikoetan, Baztango, Busturiko eta Laudioko XIX-koetan, zehazki.

*Icuste*a, bisitatzearen esanahiarekin, Añk biak onartzen ditu bere hiztegian (1963: 174): *icustatu*, *icusi*, *visitatu*. *Ikusi* forma, *bisitatu* esanahiarekin lehen testuetatik ageri da (OEH, s.u.), nahiz eta *bisitatu* forma erabiliagoa izan esanahi horrekin (ib. *bisitatu*).

Añibarrok *visitar* sarreran (1963: 174) *bisitatu* forma onartzen du. OEH-ak ondokoa dakar s.u.: “Documentado en todas las épocas y dialectos, aunque poco utilizado desde mediados del siglo XIX por autores de léxico cuidado”. Hiztegi horretan esplizituki datorren *eta/edo* egituradun agerraldi bakarra Legazen dotrinakoa da, gurearen agerraldi berdina gainera.

Erreskatatu ematen du Añibarrok bere hiztegian *rescatar* sarreran (1963: 145); *ascatu eraguitea*, halere, *redimir*, *rescatando* sarreran ageri da (1963: 142), *catibuac ascatu eraguitea*. *Askatu eragin* forma, Añk baliatzen du estreinekoz; gero Iruñea eta Durangoko XIX akabuko bi Asteetan ageri da: Legaz eta Iturzaetarenean (OEH, s.u. *askatu*). Bestela, *askatu* bera erabili da orokorki zentzu berarekin eta *erreskatatu* iduri du XIXko hirugarren laurdenerako baztertua izan dela (OEH, s.u.): Pirinioen inguruan kontzentraturik baina orokorra, Astete eta bestelako dotrina anitzetan ageri da (kasurako Betolazarena, Beriainena, Otxoa Arinena, Irazustarena eta Bonapartek editaturiko hiru Asteteetan). Aipatu beharra dago Lk *erreskatatu*-ri euskal etimologia eskaintzen diola (OEH, s.u.).

Bidezko hitza, *viador* eta *viagero* sarreretan ageri da lehen ordain gisan (1963: 173); *erromes*, *peregrino* (1963: 124) eta *romeron* (1963: 148) ageri den bitartean. *Bidezko* forma orokorra da hegoaldean, XVII-tik aurrera lekukotua, bestelako aldaerak eremu euskaldun osoan zehar agertzen direlarik lehen testuetarik (OEH s.u. *bidezko*); nahiz eta *eta/edo* egituran agertzen diren tartekaturik, orokorra da erabilera askean. *Erromes* ohikoa da XVI-tik aurrera iparraldeko eta nafar testuetan, L ostean orokortzen delarik (OEH s.u.).

Eguinvide, hiztegian *obligacion* sarreran ageri da (1963: 114), *egimbidea* gisan, bai eta *obligaciñoa*-rekin batera, 4. eta 2. ordain gisan, bakoitzak berea. *Eginbide*-k (OEH s.u.) agerraldia du *RS*-en, bainan horretaz aparte, orokorra da iparraldeko testuetan, L ondotik hegoaldean orokortuaz. *Obligazio* (OEH s.u.) orokorra da lehen testuetan, XX. menderako baztertua delarik kasik.

Obligazio forma, *obligacion* sarreran ageri da (1963: 114) *obligaciñoa* bigarren ordain gisan. *Obligazio* (OEH s.u.) orokorra da lehen testuetarik, hegoaldean lekukotuago, XX. menderako baztertua delarik kasik. Mogelek eta Agirre Asteasukoak paratzen dute *eta/edo* egiturekin bere testuetan.

Zurtasuna, *prudencia* ordaintzat ematen ditu, *prudencia*-ren sarreran (1963: 135). *Zurtasun* (OEH s.u. *zuhurtasun*) Leizarragaz geroztik dokumentatua da eta orokortua L ostean hegoaldean; XIX. akabura arte gertatzen da *eta/edo* egituraren baitan kokatzea autoreek, bereziki L ondokoek. *Prudencia* (OEH s.u.) orokorra hasieratik eta bere kabuz agertzen da.

XIX-an bere erabilera murriztuaz doa eta XX-an ez da ia adibiderik. Azken agerpenak arestian aipatu ditugun hegoaldeko dotrina berankorretan errepikatzen dira oro har.

Jangoicoa gana zucen beguiratcen duenac-en eta *Jangoicoa ganonzcóac*-en, ikusten da eratorri konplexuagoa, perpausa osatzen duen egitura dugula ordain gisan. Añren hiztegiko *teologal* sarreran (1963: 162), *Jangoico-jaquindearra, decoa, teologala* ematen ditu ordaintzat. Ikusten da, bide batez, sarrera honetan, erroa errepikatu gabe (*Jangoico jaquinde-*) *-decoa* atzizkia bere baitan ematen duela, horrela aldaera eratorriak errazkiago sortuz bere hiztegirako. Nahiz eta ordaina bera ez den, ikusten da *teologal* bezalako hitz jasoari euskaraz ordain jatorragoa emateko joera badela lehenagotik *NDot*-eko adibide bi horiekin. Orobat, lehen ematen den adibidea *NDot*-en luzeago da, bigarren aldiz *eta/edo* egituran ematen denarekin konparatuz; sintesirako joera erakutsiz dotrinan aurrera egin ahala. *Teologal* forma onarturik dago hiztegian. Ikusi daiteke (OEH, s.u.), *teologal* hitzaren azalpena testuetan, XX. mendera arte *eta/edo* egituran kokaturik ageri direla maiz, sinonimo-azalpenen parean, bere arruntze berantiarraren (edo ezaren) seinale: horrela Mendibururen eta Legazen dotrinetan, azken agerpenak Bonaparteren hiru Astetetan, Jauffreten eta Damaso de Inzaren lanetan ageri dira.

Beguirapena ez da Añ.ren hiztegian agertzen, ez eta Lreanean ere. Halere, *beguiramendu* aldaera bai agertzen da bere hiztegian *atención, respeto* gisako sarreretan eta Lren usadioei jarraikiz hitz sorkuntzaren adibidea izan daiteke hau, jadanik eskura duen erro baten aurrean. Bestetik ere, *Templanza, edo beguiratua izatea* dakar 61. orrialdean Añk, antzeko esanahiko beste eratorri bat. Egitura jakin hori aurrerago jorratuko dut. *Continencia* ez dator, ordea, haren hiztegian, ez eta ordain gisan ere. *Begirapen* (OEH s.u.) esanahi horrekin Añk baliatzen du estrainekoz, eta Legazen Iruñeko eta Luzaideko Asteteetan ere bada, horren ondotik. *Continencia* (OEH, s.u.) orokorra da lehen testuetarik, eta XIX-tik aurrera indarra galduz doa. Sarrera hau ez dator bere hiztegian, ez eta ordain gisan ere. *Continencia* (OEH s.u.) orokorra da lehen testuetarik hegoaldean bereziki, eta XIX-tik aurrera indarra galduz doa, azken agerpenak Bonaparterenengan, Legazen eta Iturzaetaren dotrinan dituelarik.

Almena badator Añren hiztegian, *potencia* (1963: 131) sarrerapean. *Potencia*, aldiz, ez du ordain gisan onartzen. *Almen* (OEH, s.u. *ahalmen*) hegoaldean dokumentaturik da soilik, L ostean. Badirudi, beraz, berak asmatuiko terminoa dela. Halere, *eta/edo* egituran noiz edo noiz ageri bada hasieran, bere soilean ere erabiltzen da goizetik. *Potencia* (OEH, s.u. *potentzia*) orokorra da; *eta/edo* egituren baitan agertzea ohikoa da hasieratik (Agirre Asteasukoak eta Legatzek adib.), bere arrotasunaren seinale.

Peticion-en sarreran lehen ordain gisan *escaria* ageri da (1963: 126). Arestian seinalaturiko *escabide* forma ere hiztegian agertzen da laugarren ordain gisan, sarrera berean. *Peticio* gisakorik ez da onartzen. *Eskari* forma (OEH s.u.) hegoaldeko tradizioan lekukotzen da bereziki; *Viva Jesusen* ageri da jada, eta baita L eta bere ondoko idazleetan ere. Aipatu behar, L ostekoetan (bereziki Añ eta Mogel, baina baita Agirre Asteasukoan, Astarloan) *eta/edo* egituran agertzeko joera du *eskari*-k; XIX akaburako bere kasa beti agertzen da. *Petizio* (OEH s.u.) orokorra den arren, dotrinetan ageri da gehienbat, eta XIXko hainbat testutan, ordain jatorragoarekin *eta/edo* egituran agertzen da, gero baztertua delarik.

Ganzutua-ri dagokionez, *ungir*-en sarreran (1963: 168) *oleatu, ungitu* ematen ditu ordaintzat c. atalean, eta *gantzutu g. (guipuzcoano)* atalean. Beraz, bere hiztegian gipuzkerako formatzat hartu zuen forma ematen du hemen.

Ungir-en sarreran (1963: 168) *ungitu* forma onartzen da. *Ungitu* forma (*unjitu* in OEH) orokorra da hegoaldean, bereziki nafar idazkietan. XX-rako ia desagerturik da, eta *eta/edo* egituren barnean paratzen dute Kardaberazek, Olaetxeak eta Ubillosek. Azken agerraldiak Bonaparteren Asteteetan eta Ulzamako beste batean ditu.

Sinisgai-ri dagokionez, ez da hiztegian agertzen, baina *sinisguei* aldaera (OEH s.u. *sinesgai*) azaltzen da *ARTICULO de la fe* sarreran (1963: 37): *sinismena*, *sinisgueia*. Añgan agertzen da lehen aldiz (Lk *sinistamena* dakar soilik: 1745, I: 102); XX. hasierara arte itxaron behar forma hau *eta/edo* egituratik at aurkitzeko. *Misterio* sarreran (1963: 107) ez da ez *misterio* ez *sinisgai* aldaerarik.

Articulo forma, *articulo de la fe* sarreran (1963: 37) ez du ordaintzat hartzen. *Articulo* forma (OEH s.u. *artikulu*) Leizarragaz geroztik lekukotzen da, hegoaldean bereziki; Astarloarengan topatzen dugu *eta/edo* egituran. XIX-tik aurrera murriztuaz doa bere erabilera, XX-ra arte.

Premiadunac-i dagokionez, ez da *premiadun* azaltzen hiztegian; bai ordea *pobre* forma, *pobre*-ren sarreran (1963: 128). Halere, *necesitado assi* sarreran (1963: 111), *premiadagoana* ordaina ematen du; bai eta *pobreza* sarreran, *premia* ere (1963: 128). *Premiadun* forma Añk ematen du lehen aldiz bere testuetan (OEH s.u. *premia*). Bat dator Añren hiztegia sarrera hauetan Lk bere hiztegian dakarrenarekin.

Pobre forma, *pobre* sarreran (1963: 128) ordain gisan onartzen du Añibarrok. *Pobre* (OEH s.u.) orokorra da garai eta dialektok orotan, *eta/edo* egituraren adibiderik ez dut topatu. Halere, XIX-tik aurrera erabilera apalduz doa.

Eriozcoac, *becatu*-ri erreferentzia eginaz, hiztegian *pecado mortal* sarreran ordain gisa ageri da: *becatu eriozcoa* (1963: 122). *Bekatu heriozko/heriozko bekatu* (OEH s.u.) formak Etxeberrri Zibururengan ageri dira lehenengo aldiz bere kabuz; gerora L osteko idazleetan ageri den arren, ez du agerpenik lortzen *eta/edo* egituratik at.

Hiztegian, *pecado mortal* sarreran, berau ez da ordain gisan onartzen (1963: 122). Lehen testuetarik orokorra da (OEH s.u. *bekatu*), halere, XVIII bigarren erditik aurrera, *eta/edo* egituran agertzen hasten da Mendiburu eta Ubillosengan, XIX-an Mogel eta Añ zein Legazengan, XX-an adibide gutxi aurkitzen direlarik.

Andiuste, *goitura*-ri dagokienez, hiztegian (1963: 155-156) biak lehen bi ordain gisan ematen ditu *sobervia* sarreran, eta *soberbia* bera 4. *Soberbia* (OEH, s.u.) orokorra da hegoaldean, XIX-an gainbehera duena eta ia adibiderik ez XX-an. Aipatzekoa, L ondoko idazleengan (haren jarraitzaile aitortuengan bereziki), lehenagoko testuetan ez bezala, *eta/edo* egituraren baitan azaltzen da nabarmenki. *Andiuste* (OEH s.u.) Lk asmatuakoa dirudi, eta XIX akabura arte *eta/edo* egituraren barnean txertaturik ageri ohi da, orokor bilakatua, bide batez. *Goitura*-k (OEH, s.u.) erabilera murriztagoa du, Añgan mugatuz.

Soberbia forma, hiztegian (1963: 155-156) *sobervia* sarreran ordaintzat onartzen du. Orokorra da hegoaldean (ik. OEH s.u.), XIX-an gainbehera du eta XX-an ia adibiderik ez. L ondoko idazleengan, lehenagoko testuetan ez bezala, *eta/edo* egitura barnean azaltzen da nabarmenki forma hau, Mendiburu, Añibarro, Gerriko, Agirre Asteasukoa, Astarloa, Busturiko dotrina eta Legazengan.

Cenzuna, Añk Bzko atalean ematen du bere hiztegian (1963: 152); *sentidu* ez du aldaera gisan onartzen. Bizkaitar tradizioko forma da hau (OEH s.u.). *Sentidu* hegoaldeko forma da (OEH, s.u.).

Sentido sarreran (1963: 152), *sentidu* ez du onartzen. *Sentidu* hegoaldean lekukoturiko forma orokorra da (OEH s.u.), XXrako ia ezabatua. *Eta/edo* egiturarik ez dut paratu adibideetan.

Zucentasun forma *rectitud* sarreran agertzen da hiztegian ordaintzat (1963: 141). *Justicia*, *justicia* sarreran agertzen da ordain gisan (1963: 94), baina ez *justutasun* gisakorik. *Zuzentasun* forma (OEH s.u.) XVIIIz geroz dokumentatua da, gehiago iparraldeko tradizioan; Larramendik *rectitud* sarreran ere ematen du (1745 II: 230). Aipatzekoa da, Agirre Asteasukoaren lanetan, *eta/edo* egituraren baitan agertzen dela hau ere. *Justutasun* (OEH s.u.) iparraldeko tradizioan lekukoturik da, baita Añgan ere.

Sabeldarriotasun formari dagokionez, Añren hiztegian, *gula* sarreran *gueizaletasuna* ematen du ordaintzat soilik, eta ez du *gula* onartzen (1963: 83). Halere, *tragon* sarreran *sabeldarrioa* ematen du Añbarrok ordaintzat (1963: 165), Lren gisara. *Sabeldarriotasun* forma Materre eta Axularrengan lekukoturik da soilik lehenago²² eta hegoaldean “en textos meridionales de léxico poco cuidado”. Ezin jakin irakurria zuen Añbarrok forma atzizkiduna ala beste formatik abiatuz bere kabuz iritsi zen. Azken agerpenak Bonaparteren Asteteetan ditu.

Icusiecina forma *envidia* sarrerako bigarren ordain gisan azaltzen da (1963: 70), *invidia* ordain gisan paratuz aurrekoaren gibelean. Aipagarria da bere hiztegian <v>-z ematea euskal ordaina, bere lanen kronologian, soilaz ematea euskal formak, maileguak direnean ere espero litekeelako. Mogelek du *icusiecina* estreinekoz eta gipuzkoar eta bizkaitar literaturan ageri da.

Envidia, *invidia* gisan paratzen du *envidia* sarreran (1963: 70). *Enbidia* (OEH s.u. *inbidia*) “Documentado en todos los dialectos salvo en suletino. Durante los ss. XIX y XX disminuye mucho su uso y se documenta sobre todo en catecismos y textos de léxico poco cuidado.” *Eta/edo* egitura barnean paratzen du Kardaberazek. Ez Mikelestorena ez Elizalderengan ez da adibiderik.

Luxuria sarreran (1963: 100) ez du *luxuriarik* ordaintzat. *Lujuria* (OEH s.u.) orokorra da XX-ra arte erligiozko testuetan. Lavieuxvilleren dotrinan *eta/edo* egituran ageri da. Ez Mikelestorena ez Elizalderengan ez da alerik. *Desonesqueria*-ri dagokionez, *luxuria* (1963: 100) sarreran ordain gisa ematen da.

Beracha forma, hiztegian *suave* eta *blando* bezalako sarreretan ageri da, nafarrerazko sailean kokaturik. *Manso* sarreran (1963: 102), *mansoa* ordaina ematen da, baita *biguna* ere, baina ez *beracha*. Luzapenez, *beracha* formaren erabilpena guztiz justifikaturik dago hiztegian bertan. *Beratz* edo *beratx* forma adierazgarriak (*beratz* in OEH), goi-nafarrerazko tradizioan lekukotzen dira. *Manso* (*mantso* in OEH) orokorra da bai iparraldean eta hegoaldean). Juan Jose Mogelek ageri du *eta/edo* egituraren barnean, baita Busturiko dotrinak zein Eguzkitzak ere.

Desonesqueria forma *luxuria* sarreran ematen da ordain gisan, *araguzco becatua* forma bere atzetik doala (1963: 100); *Luxuria* formarik ez du ordaintzat onartzen. *Desonesqueria* eta antzeko formak (OEH s.u.) Axularrengan lekukotzen dira estreinekoz, Lk bere hiztegian ematen du eta hegoaldean ere agertzen hasten da. Hasieratik bertatik, Axularrek ere *eta/edo* egituran kokatzen du ordain jatorragoaren parean, eta praktikak jarraitzen du XIX erdialdera arte, orduan itzaltzen delarik. *Lujuria* (OEH s.u.) orokorra da testu zaharretan eta horrela erabili zen XX-rako desagertzen delarik.

Ezcontza-ri dagokionez, hiztegian hainbat sarreretan ageri da, *matrimonio* sarreran ere (1963: 104). *Matrimonio* bera ez da ordaintzat onartzen. *Ezcontza* forma orokorra da lehen

²² Materrak *eta/edo* egituran paratzen du bere lanean, *sabeldarriotasun*-ekin batera.

testuetarik, Z-an izan ezik (OEH s.u.). *Matrimonio* hegoaldean soilik lekukotzen da, XX-rako desagerturik (OEH s.u.).

Lagun projimoa edo *projimo laguna* formak, hiztegian *progimo* sarreran bigarren ordain gisan ageri dira (1963: 134). Hortaz, hitz konposatutzat har liteke eta ez *eta/edo* egitura gisan, nahiz eta *lagun* forma bere kabuz ageri testuan zehar.

Urricarizco, *urriqutasun*, *urricaritasun*, *urricamendu* eta *urricari* formei dagokienez, hiztegian honako ordainak ematen ditu *miser cordia* sarreran (1963: 107): *b. g. erruquia, quitasuna; g. n. urriqutasuna, urricamentua*. Ikusten da hemen, B eta Gko ordaintzat, bigarrenean atzizkia soilik paratu duela, eratorritako erroa elidituz (partzialki bada ere); G eta Nzko ordainei dagokienez, uler liteke ere, nahiz eta eratorri gabeko formarik paratu ez, posible litzatekeela ondoren datorren erroarekin ere osatzea, eta hala erakusten du testuan (*urricari, urricarizco* formekin). Bestetik, *urriqui- urricari-* erroen txandakatzea hiztegian bertan somatzen da (*urriqutasuna, urricamentua* formetan). Laburbilduz, hiztegiiko sarreran nolabait laburturik agertzen dira gero testuan exekutatzen dituen aukera ezberdinak.

Beressi formari dagokionez, bere grafia markagarriaz aparte, aipatu dugu arestian *bereci* forma eta bere eratorriak hiztegian Nzko zatian paratzen direla. Beraz, nahiz eta hiztegian *distintos* sarreran (1963: 64) *eta/edo* egitura honetako zeinahi forma ez onartu, badu tokia *beressik*. *Bereci* iparraldean lekukotua da batez ere (OEH s.u.), XVIII. eta XIX.-etan zabaltzen delarik Lren eraginez, lehenik bere jarraitzaileengan eta ondoren are zabalkiago; halere, *eta/edo* egituretan paraturik soilik Etxeberri Ziburukoak eta Pouvreaux darabilte, Añkin batera. *Distinto* (OEH s.u.) hegoaldean lekukotzen da soilik eta XX-rako desagertua da. Lekukotasunen artean *eta/edo* egituren ageri da Busturiko XIX-ko dotrinan eta Kardaberazenean.

Aitaren eguitea, Añk bere hiztegian *Aitearena eguin* dakar 3. ordaintzat (1963: 150). *Santiguatu* ez du ordaintzat onartzen. Forma hau Añk dakar lehen aldiz (*aita* in OEH), gerora zabaltzen delarik. Aipatzeko, Iturzaetaren Astetearekin forma hau, beste asko bezala, bat dator *eta/edo* egituren paraturik dela ere. *Santiguatu* (OEH s.u.) hegoaldean lekukotzen da soilik, XX-ra arte, maiz *zeinatu* formaren parean. Hauen bien aurrean, forma orokorra *zeinatu* eta bere aldaerak dira (OEH s.u.), bai Lk eta Añk haien hiztegian *santiguar*-en ordain gisa dakarte. Halere, Añk *NDot*-en bereizketa egiten du *aitaren eguin* eta *zeinatu*-ren artean. Lehenak “Escuñeco bi beatzaqui Gurutce bat eguitea copetatic bularrera, ta ezquerreco soinetic escuñecora”-n datza, eta 2.a, aldiz, “Escuñeco beatz lodiaz irur Gurutce eguitea. *Lembicicoa* copetan: *Bigarrena* agoan: *Irugarrena* bularrean” (ca. 1800: 11-12). Bi ariketa ezberdinez dabil beraz, bi ordain horiek baliatzerakoan.

Aitormen formari dagokionez, Añk bere hiztegian ez dakar *confesion* sarrerarik; halere, *confesar* sarreran, *autortu*, *aitortu*, *confesatu* dakartza (1963: 53). Lk bere hiztegian *confesion* sarreran, *aitor-*, *autor-* eta *aboa-* erroekin ordain ezberdinak dakartza, baina bat ere ez *-men*, *-pen* atzizkiarekin (1745 I: 219). *Aitormen* (OEH s.u.), lehen aldiz Tartasek dakar, horren ostean L ondorengoek baliatzen dutelarik. Bere lehen agerralditik bertatik, *eta/edo* egituren ageri da eta ondorengoengan agerpen gutxiren bat izanen du, baina ez gehiegi (kasurako Añibarro eta Ubillos). *Confesio* (OEH s.u.) forma orokorra da bere aldaerekin, nahiz eta XX-an jada agerpen gutxi dituen, *aitormen*-en mesedetan.

Eguicaia forma, *eguicaya* ordainarekin ematen du bere hiztegian *acto*-ren sarreran (1963: 26). *Acto* bera ez du onartzen. Aipagarria bere horretan, bokal arteko <y> grafia darabilela, bere ondorengo lanetan ageri ez dena, *NDot*-en jada salbuespen bakar gisan. *Eguicai*

forma (OEH s.u.) Mogelengan agertzen da estreinekoz, Lren hiztegian *egin* erroarekin ordain ezberdinak ematen ditu baina *-gai/kai* erroarekin bat ere ez. Erabilera zabala lortzen ez duen arren, iduri du XX-ra arte *akto* esanahiko forma eratorrian *egin*-en gainean eginda ez direla *eta/edo* egituretatik askatzen Arruerekin XIX akabura arte. *Acto* forma orokorra da (OEH, s.u.), XX-rako kasik desagertu arte.

Beguiratua izatea-ri dagokionez, arestian aipatu gisan, *beguiramendu* dakar Añk bere hiztegian soilik, eta erro berarekin eratorpen ezberdinak egitea posible zuen. Gauzak horrela, *templanza* sarreran, *beguiratua izatea* ordaina dakar (1963: 162). Larramendik, bere aldetik, *Comedirse* eta gisako sarreretan *beguirune* ordainak dakartza (1745 I: 211), beraz, *beguir*-erroaren gainean eratorpen emankorra dagoela ondoriozta dezakegu, antzeko esanahidun hitzak agertzen direlarik hiztegiatan. *Begiratu* aditza, hemen azaldu dugun antzeko esanahiarekin, hots, zaintzea eta goardatzearena, iparraldeko tradizioari dagokio, baita goi- nafarrerazko zenbait testuri (*begiratu* in OEH). Añk, *templanza* ordain gisan ez du bere hiztegian onartzen, Lk ez bezala (1745 II: 321). *Templanza* forma hegoaldean lekukotzen da oso urriki (OEH, s.u. *tenplantza*) XXrako desagertua da, eta *eta/edo* egituraren paratzen du Legazek.

Billacuntza-ri dagokionez, Añibarrok *examen* sarreran dakar (1963: 74): *examen* bera lehen ordain gisa dakar, ostean *billaquinde* eta gero *pecatuen billacuntza*. Aipagarria beste behin ere (Urgell 1987b), grafiari dagokionez, hiztegian ordain gisan <x> grafia baliatzea, ostera emanen duen <sh> euskararazko grafiaren aurrean, *NDot*-en grafiatik gertu paratuz berau. *Bilakuntza* (OEH, s.u.) Mogel eta Añgan agertzen da *eta/edo* egituraren baitan, ostera asko lekukotzen ez dela. Lk, bere hiztegian, *billaquindea* ordaina ematen du *examen* sarreran (1745 I: 357), erro beraren gainerako eratorrieekin batera, *-kuntza* errorik ageri ez bada ere (bainan *-tza* bai, kasurako); gauzak horrela, iduri du L osteko idazleek bazutela joera, orain arte jorratu ditudanetan agerian geratu gisan, Lk baliaturiko erroen gainean eratorpena beste atzizkien bidez luzatzeko eta forma eratorri berriak osatzeko, Lk zuzenean eman ez, baina zeharka akaso. *Examen* (*etsamina* OEHn) eta antzekoak (*-men* formak justuki iparraldeko tradiziokoak dira) orokorrak XX-ra arte.

Ciurtasuna Añk ordain gisan ematen du bere hiztegian *justicia* sarreran (1963: 94). *Ziurtasun*, *justizia* esanahiarekin (OEH s.u. *ziurtasun*), Añk paratzen du soilik, Legaz arizkundarrarekin batera, honen Astetearekin ere, antzekotasunak lexikoan pilatuz. *Justizia* forma (OEH s.u.) orokorra da eta XXIera arte iraun du, nahiz erabilera apaldu.

izate-ri dagokionez, Añk ez dakar *naturaleza* sarrerarik bere hiztegian; halere, *sobrenatural* sarreran (1963: 156), *izategaraia* ordaina ematen du gipuzkerazko zatian, beraz *izate* erroarekin jokatzeko du nahiz eta sarrera bat ez eskaini honi berariaz. Lk, bere partetik, *naturaleza* sarreran (1745 II: 111) agertzen du *izatea* bigarren ordain gisan. *Izate* forma orokorra da (*izate* in OEH), halere, L aurretik lekukotasun bakarra du hegoaldean Kapanagaren dotrinan, ostera iparraldetik zabaltzen delarik; bide batez *eta/edo* egituraren baitan soilik Kardaberaz eta Añk paratzen dute, bestela bere baitan agertuz. Ikusirik bada forma honen egoera, Añk Lgan irakur zezakeen (edota Mendiburu zein Kardaberazengan, hirurak gipuzkoarrak) eta Gtzat joz atal horretan paratu bere hiztegian. *Naturaleza* forma orokorra da, XX-rako ia desagertua (OEH s.u.).

Garbia Añk bere hiztegian bigarren ordain gisa paratzen du *casto* sarreran, *castoaren* ostean. *Garbi* forma orokorra da (OEH s.u.), halere *eta/edorekin* baliatzen dute Kardaberaz eta

Lardizabalek haien dotrinetan. *kasto* forma ere (OEH s.u.) orokorra da, XX-rako ezabatua; *eta/edo*-rekin ere paratzen du Aguirre Asteasukoak.

Aita gurea, Añren hiztegian *pater-noster* sarreraren ordain bakar gisan agertzen da. Lk, bere hiztegian gauza bera dakar (1745 II: 135). Lehenago, Etxeberri Ziburukoarengan dago lekukoturik (OEH s.u. *aita*), eta Belapeyrek *eta/edo* egituran paratzen du.

Damua-ri dagokionez, Añk *dolor*, *arrepentimiento* sarreran paratzen du lehen ordain gisan, *biotz miña*, *bihotz damua* ordainekin batera, baita *arrepentimiento* sarreran ere (1963: 37). Halere, *dolor*-en beste sarreran, *dolore* ordain gisa onartzen du, esanahi ezberdinarekin bada. Hegoaldean (OEH, s.u. *damu*) erabiliagoa da dakargun esanahiarekin ere eta *eta/edo* egituran fr. Bartolomek, Lardizabalek eta bestek Arruera arte hala lekukotzen dute. *Dolore* forma (OEH, s.u.) orokorra da XIX-an erabilera jaitzi eta XX-an ia ezabatu arte.

Cuticia-ri dagokionez, Añk *avaricia* sarreran *guticia* paratzen du (1963: 40) eta *codicia* sarreran *cuticia*, *guticia* biak onartuz. *NDot*-en <c> grafiarekin soilik aurkitu dut. Orokorra da, nahiz eta bereziki erdialdean ageri den. *Avariciari* dagokionez, OEH-k hurrengoak dakar: “Algunos autores de léxico cuidado lo emplean con *edo* seguido o precedido de un sinónimo: [...]” (OEH s.u. *abarizia*). Forma orokorra, oraino maiz azaldu dugun ideia zuzenki paratzen da hemen, hots, zenbait autorek mailegu gordinegiak sinonimo jatorragoz laguntzen dituzte. Halere, zehaztu behar da *eta/edo* egiturak paratzeko joera L osteko idazleengan nabarmentzen dela, XIX akabura arte iraunaz gehienetan, gerora forma jatorrak gailendu edota normaldu diren seinale. Ezohikoak dira *eta/edo* egiturak L aurreko idazleengan jorratu ditudan adibideotan, Axularren bat edo beste kenduta. Bide batez, Mendiburu, Kardaberaz, Añ, Mogel eta besterengan kontzentratzen dira, Lren jarraitzaileengan alegia. XIX akabuko eta XX-ko forma gordinak erabiltzen jarraitzen dituztenengan, oro har, *eta/edo* egitura gabe paratzen dituzte, XX-rako oro har galduaz; eta testu erlijiosoetan paratzen dira maizen gordin berantiarrok.

Aguiri, Añren hiztegian ez da lekukoturik, *señal* sarreran *señale* eta bestelako ordain jatorragoak eta eratorriak ematen dira, baina ez *aguiri* (1963: 153). Halere, hiztegian askotan ordain gisa azaltzen da, *manifiesto* zein *signos sensibles* sarreretan kasurako (1963: 102, 155), eta antzeko esanahi zenbaitetan ere bai. Lk Añen gisara paratzen du bere hiztegian. *Aguiri* forma (OEH s.u.) *señalearen* esanahiarekin, Kardaberazengan lekukotzen da lehenengoz, bai eta Mogelengan *eta/edo* egitura barnean, bere iloba Vicentagan *eta/edo* egituran zein Arruerengan. XXan erabilpena zabaltzen da nabarmen. *Señalea* orokorra da bere aldaera guzietan XXra arte (OEH s.u.).

Arina forma, bekatuari dagokionez, Añk bere hiztegian *pecado venial* sarreran dakar (1963: 171), *veniala*-rekin batera. Forma hau Axgan ageri da lehenik eta L ostekoek erabiltzen hasten dute, *eta/edo* egitura nagusiki, XIX akabura arte (OEH s.u. *bekatu*). Kontrara, *benialen* erabilera murriztuz doa XIX erdialdean, XXrako ia desagertuaz.

Oroipen formari dagokionez, *acuerdo*, *memoria* sarreran G eta Nzko partean ageri da *oroipena* bigarren ordain gisan, *oroitza*-ren atzetik (1963: 26). *Memoria* ez du ordain gisan onartzen. Lk *oroipena* forma *recuerdo* sarreran dakar (1745 II: 230); eta *oroitzapena*, *Acuerdo*, *memoria* sarreraren bigarren ordain gisan. Gauzak horrela, badirudi Añk forma eratorri laburragoa gehitu ziola Lk emandako besteari eta bere testuetan hobetsi, (OEH, s.u. *oroipen*) gerora Aguirre Asteasukoak eta jada aipaturiko Legazek jarraiturik; XIX-tik idazle gipuzkoarengan lekukotzen da gehien, Gerrikorengan *eta/edo* egitura ageriz.

Sinistatze, Añibarroren hiztegian ez du tokirik. *Fe* sarreran (1963: 73), *fedea*, *sinistea*, *sinistasuna* ematen ditu ordaintzat. Halere, *creer* sarreran, *sinistatu* ordaina ematen du Nzko atalean; beraz, *sinistea* ordainaren gisara, aditz nafarraren gainean aditz-izena sortu du Nzko ordain gisara, eta hala erabili du soilik Añibarrok bere lanean (OEH, s.u. *sinestatze*). *Fede* forma orokorra da, XX-an saihesten hasten delarik (OEH, s.u.).

Atricio formari dagokionez, nahiz eta *eta/edo* egitura batean zuzenki ez lotu, *calte-damua* eta *bildur-damua* agertzen dira ordain gisa behin, aurretik eta atzetik mailegatua ematen delarik. Hiztegian (1963: 39), *caltedamua*, *bildurdamua* ordainak ematen ditu, dotrinan azaltzen denarekin bat eginez. *Atricio* ez da ordain gisan onartzen, nahiz eta dotrinan gailentzen den. *Kalte-damu* forma Añren *Ndot*-en azaltzen da soilik (*kalte* in OEH). *Bildur-damu* forma (*bildur* bizkaitar tradizioan lekukotzen da oro har, eta Gzko zenbait testutan ere bai) Mogelengan agertzen da estrainekoz eta aurrekoa baino orokorragoa da. Lk bere hiztegian (1745 I: 114) *izudamua* oinarrizko forma ematen du, hortik Mogelengan kausituriko *beldur-damua* estrapolatzen ahal delarik, hitz elkartuaren lehen elementua ordezkatzuz (*miedo* sarreran (1745 II: 88), bai *beldurra* eta bai *izua* dira ordaintzat). Añk, *miedo* sarreran, *bildurra* ematen du lehen orokortzat (1963: 106), *beldurra* Gko ordaintzat jotzen duelarik.

Griña forma, *pasion* sarreran paratzen du Añk *biotz-griña* ordainpean (1963: 121), *pasio* ordainarekin batera. *Griña* bere kabuz, *propension*, *inclinacion* sarreraren ematen du (1963: 90, 134). Beraz, *eta* juntagailuaz baturik ageri direnean, ez da argi *eta/edo* egituraz mintzo gaitezkeen ala sinonimia konplexuago batez. Badu *griña* hitzak beste agerraldi bat dotrinan zalantzazkoa izan daitekeena ene aburuz (ca. 1800: 60), *propension* eta *pasion* hitzen esanahi ezberdintasuna lausoa egiten baitzait. Dena dela, sinonimotzat joko ditut hemen. *Griña* forma (OEH, s.u.) hegoaldeko autoreengan ageri da XVIII. mendetik aurrera *pasio* esanahiarekin (Lk, *passion de alma* sarreran, *griñalda* ematen du ordaintzat, besteren artean). *Pasio* orokorra da (OEH, s.u.) XIX-an erabilera murrizten hasiaz eta are gehiago XX-an.

Cuticiatcea forma, arestian *cuticia* jorratu duguna, *codiciar* sarreraren ageri da hiztegian, *cuticiatu*, *guticiatu* txandakatze berarekin. *Desear* sarreraren *deseatu* ematen du lehen ordaintzat (1963: 60), ez ordea *cuticiatu* gisakorik. Halere, biek dute tokia hiztegian. *Deseaturi* dagokionez (OEH s.u.), hegoaldeko tradizioan agertzen da eta ondoko oharra ematen da: “durante la 2.a mitad del s. XVIII y todo el XIX parece faltar en autores representativos y aparece a veces emparejado con verbos como *kutiziatu* o *gura izan*”. Gauzak horrela, berretsita ikusten dugu zenbait mailegu gordintasun maila batekoekin (orokorrean hegoaldeko tradizioan erroturik) XVIII erdialdetik aurrera ematen den jokabide aldaketa autore jakinengan (Lren jarraitzaileengan). *Cuticiatu* forma (OEH, s.u.), bere aldaerekin iparraldean lekukotzen da oro har, Leizarraga eta XVIII erdialde osteko idazleengan. Hegoaldean, L ostean agerpen bakanak egiten ditu, azkena jadanik aipaturiko Legazen dotrinan delarik.

Hurrengo bi adibideetan, forma jatorra paratzen da lehenengo, gero *eta/edo* egituran sartzeko eta ostean bai mailegua bai jatorra ageri dira testuan sakabanaturik, nahiz eta agerraldi kopuruan jatorra gailendu.

Zoriontasun hiztegian *bienaventuranza* sarreraren ageri da bigarren ordain gisa, *zorionaren* atzetik (1963: 43). *Bienaventuranza* bera ez da ordaintzat hartzen. *Zoriontasun*, *bienaventuranza*-ri erreferentzia egiteko, Añk paratzen du lehen aldiz (*zorion*-en esanahi berarekin, Mogelengan lehen aldiz agertzen delarik); halere, Lk *bienaventuranza* sarreraren (1745 I: 138), *zoriona* ematen duen bigarren ordaintzat,

doatsuera-ren ostean. *Zoriontasun* forma ez da Lgan agertzen, ez eta ondoan paratzen duen ordainetan *-tasun* atzizkirik. *Bienaventuranza* formari dagokionez (OEH, s.u.), L aurretiko idazleengan dokumentatzen da nagusiro, eta honen osteko agerraldietan, *eta/edo* egitura batek lagundurik ageri da ia orotan.

*Gogo*a, *proposito firme* sarreran ageri da lehen ordain gisa (1963: 134). *Proposito de hacer algo* sarreran, hirugarren ordain gisan *propositua* ageri da (1963: 134). Biek dute tokia hiztegian beraz, nahiz eta *gogo* forma eta haren eratorriak lehenesten diren. *Gogo*, *propositu* esanahiarekin, iparraldeko idazleengan ditu lehen agerpen urriak, eta L ostean hedatzen denean, bai Mogel eta bai Añibarroengan, *eta/edo* egituraren parean ageri da, eta joerak XIX akabura arte irauten du (OEH s.u. *gogo*). *Propositu* forma, hegoaldean lekukotzen da salbuespen gutxirekin eta XIX erdialdean izaten du beherakada nabarmena, XX-an ia desagertu arte.

Ondorengo adibidean, lehenik mailegua da aske, gero *eta/edo* egituran ageri da eta horren ostean biak aske, baina jatorra gailentzen da hemen beste behin agerraldi kopuruan.

Betetzea, *cumplir* sarreran ematen du hirugarren ordain gisan: *cumpli*, *plitu*, *beté*, *eguin* (1963: 57). Aipatzekoa beste behin, ordainak osatzeko (aurreko) erroa elidituz eratorpena soilik paratzen ahal duela bere hiztegian Añk ordaina emateko. *Bete* forma, zigor bat edo antzekorik betetzearen esanahiarekin, iparraldean lekukotzen da Leizarragaz geroz eta L ostean, “es usado por autores de todos los dialectos literarios” (OEH s.u. *bete*). *Cumplitu* forma, bere aldaera ezberdinekin, orokorra da lehen testuetarik eta luze iraun du; halere Mogelengan jada *eta/edo* egitura bildua agertzen da gure testuan bezalaxe, nahiz eta ondoko autoreengan biluzirik ere ageri den (OEH s.u.).

Ondorengo bietan, mailegua ageri da aske lehenik, *eta/edo* egituraren ostean, bai mailegua bai jatorra ageri dira aske, baina mailegua gailenduaz.

Irurtasun/irutasun forma, *trinidad* sarreran lehen ordain gisan paratzen du, ostean *trinidad* (1963: 167) (*NDot*-en *trinitate* forma gailentzen da). Hiztegian ere, *tres*-en ordain gisan *irur* ematen du nafar ordaintzat (167), nahiz testuan *eta/edo* egitura *irurtasun* paratu eta bere kabuz denean, *irutasun* ageri, batasun eza ageriz horri dagokionez. *Hirutasunek* (OEH, s.u.) Etxeberri Ziburukoarengan du lehen agerraldia, eta L ostean zabaldu egiten da. *Trinitate* formari dagokionez (OEH, s.u.), “Al Sur, ya desde el s. XVIII, se acompaña frecuentemente de otros términos como *hirutasun*, etc.”, XX-rako ia desagerturik dena.

On-damua forma, hiztegian *contricio* sarreran ageri da lehen ordain gisan (1963: 54). *Contricio* bera ez da ordaintzat onartzen. Hiztegian ere beste esanahi batekin ageri da, bide batez hedatuena duena (OEH, s.u. *ondamu*), nahiz eta dotrina honetan esanahi horrekin ez ageri (*inbidia* esanahiarekin, alegia). Hau Mogelengan ere ageri da. Larramendik bere hiztegian *ones-damua* ematen du ordaintzat. *Kontrizio* forma orokorra da (OEH, s.u.), XXan erabilera biziki jaitsi arren.

Ondoko azken adibidean, bi formak aske ageri dira *eta/edo* egituraren bi aldeetan baina, *eta/edo* egitura ostean, mailegua gailentzen da agerraldi kopuruari dagokionez.

Eguillea forma ordain gisan ageri da sarrera askotan, nahiz *creador* sarrerarik ez egon hiztegian. *Creatale* forma ez da hiztegian ageri. *Egilea* forma orokorra da (OEH, s.u.). *Kreatzaille* forma ere orokorra da, hobe dokumentaturik iparraldean, eta XX-rako ia desagertua (OEH, s.u.). Bietako bat ere ez da *eta/edo* egituratan paratzen oro har.